



Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

Instituzioen erantzuna emakumeen aurkako etxeko
tratu txarren aurrean, EAeko psikologia-alorrean.

**Baliabide psikologikoei buruzko ebaluazioa,
emakumeen aurkako etxeko tratu txarrei
dagokienez**

AURKIBIDEA

0. AURKEZPENA.....	3
I. KAPITULUA – HELBURUAK, EREDUA, EBALUAZIO-METODOLOGIA ETA ERABILITAKO TERMINOLOGIA.....	4
I.1. EBALUAZIOAREN HELBURUAK _____	4
I.2. EBALUAZIO-METODOLOGIA _____	5
I.3. TERMINOLOGIA _____	7
II. KAPITULUA – INSTITUZIOEN JARDUERAREN NONDIK NORAKOA, GENERO-INDARKERIA ETA ETXEKO INDARKERIAKO EGOERETARAKO LAGUNTZA PSIKOLOGIKOAREN GAIETAN.....	8
II.1. LEGE-ESPARRUA _____	8
II.2. ANTOLAMENDU-ESPARRUA: AURREKARIAK ETA EGUNGO EGOERA _____	12
III. KAPITULUA – BALIABIDEEN NORAINOKOA.....	16
III.1. BALIABIDEEN DESKRIPZIOA _____	16
III.1.1. Programen edukia _____	16
III.1.2. Giza baliabideak _____	19
III.1.3. Baliabide Materialak _____	20
III.1.4. Prozesuen deskripzioa _____	23
III.2. BALIABIDEEN ERABILERA _____	30

**IV. KAPITULUA – LAGUNTZA PSIKOLOGIKOKO PROGRAMEN KALITATEARI
BURUZKO AZTERKETA KUANTITATIBOA 33**

IV.1. PROFESIONALEN PROFILA 36

IV.2- LAGUNTZA PSIKOLOGIKOKO PROGRAMAK 47

**V. KAPITULUA –BALIABIDE PSIKOLOGIKOEN EGOKITASUNARI BURUZKO
AZTERKETA..... 53**

V.1. SARRERA 53

V.2. BALIABIDE PSIKOLOGIKOEN ANALISIA 55

V.3. AMAIERAKO BALORAZIOAK 61

V.4. ONDORIOAK 63

ERANSKINA

1. Galdetegien gidoia 71

0. AURKEZPENA

Otsailaren 18ko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 51. artikulua arabera, *“Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundeak aldian-aldian ebaluatu egingo du zein den Euskal Autonomia Erkidegoan emakumeen aurkako indarkeriaren arloan dauden baliabideen eta programen eraginkortasuna eta irismena”*.

Konpromiso horren ondorioz, 2006. urtean arlo horretan dauden gizarte-baliabideen funtzionamenduari eta eraginkortasunari buruzko ebaluazioa egin zuen Emakunde, eta 2007. urtean arlo polizial eta judizialeko baliabideen ebaluazioa egin zuen.

2008. urtean, legeak ezarritakoa betetze aldera, Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) emakumeen aurkako indarkeria-egoerei erantzuteko **osasunaren arloan dauden baliabideei** eta **laguntza psikologikoko baliabide espezializatu**ei buruzko ebaluazioa egin dugu. Aurreko txostenetan bezala, ebaluazio honen helburua baliabideak egokiak diren baloratzea eta horien funtzionamendua eta eginkizuna nolakoa den jakitea da. Horrela, instituzioen eguneroko jarduna gertutik ezagutzeak eragindako hausnarketak abiapuntu hartuta, zerbitzu horiek guztiak hobetzeko.

Esku artean duzun txostenean, **laguntza psikologikoko baliabide espezializatu**ei buruzko azterketaren emaitza bildu dugu. Bost kapitulutan banatuta dago: lehendabizikoan helburuak eta erabilitako metodologia eman dugu ezagutzera; hurrengo bietan aztertutako baliabideen egoera eta norainokoa deskribatu dugu; eta hurrengo bietan eta azkenean horien kalitateari eta egokitasunari buruzko ondorioak bildu ditugu, kuantitatiboak zein kualitatiboak.

Zerbitzu horiek guztiak gizarte-zerbitzuko eskumenaren esparrukoak direnez, horiei buruzko informazio osagarria ere kontsulta daiteke; hain zuzen ere, etxeko tratu txarrei dagokionez, lehen aipatutako gizarte-zerbitzuei buruzko ebaluazio-azterketan.

I. KAPITULUA – HELBURUAK, EREDUA, EBALUAZIO-METODOLOGIA ETA ERABILITAKO TERMINOLOGIA.

I.1. EBALUAZIOAREN HELBURUAK

Ebaluazio honen helburua etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako laguntza psikologiko espezializatuko baliabideak eta programak nola funtzionatzen duten hobeto eta sakonago jakitea da, horiek hobetzeko eta optimizatzeko. Zerbitzu horiek EAEn ematen dira, gizarte-ekintzaren esparruan, lurraldeka antolatuta eta foru-aldundiek dutela titulartasuna.

Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak, Genero Indarkeriaren aurka Osoko Babesa emateko Neurriei buruzkoak, ezarritako moduan emakumeen aurkako indarkeria-egoerei berariaz erantzuteko baliabideak dira, gai horren ingurukoei osotasunean ekiteko.¹

Denbora-mugari dagokionez, 2008. urteari dagokio eta hiru alderdi hauek ditu oinarri:

1. Emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako laguntza psikologikoko zerbitzuen funtzionamendua ulertzea.
2. Zerbitzu horren kalitatea zenbatekoa den eta zerbitzua zein modutan ematen den baloratzea.
3. Hobetu beharreko arloak identifikatzea.

¹ Herritarrentzako laguntza psikologikoa osasun-arloan ematen da, osasun mentaleko zentroen bidez. Arlo judizialean, delituko biktimari, Biktimari Laguntzako Zerbitzuaren bidez (BLZ), Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailaren Zigor Betearazpenaren Zuzendaritzapekoa.

1.2. EBALUAZIO-METODOLOGIA

Txosten hau egiteko erabili dugun metodologiari dagokionez, metodo anitzeko estrategia du oinarri, informazioa lortzeko teknika kuantitatiboak eta metodo kualitatiboak konbinatzen dituena.

A. Dokumentazioaren analisia: Baliabide psikologikoei buruzko dokumentazioaren gaineko informazioaren analisia oso garrantzitsua da ebaluazio-azterlana egiteko, horien guztien ezaugarri nagusiak zein diren jakiteko aukera ematen baitu.

Hainbat instituzioetako oinarrizko dokumentazioa (zerbitzu-gidak, txostenak eta memoriak) bildu eta horien analisia egin dugu, baita emakumeen aurkako indarkeriaren arloan instituzio horiek duten jardunari buruzko araudia ere.

Gida, memoria, araudi eta bestelako dokumentazioetan, instituzioek dituzten baliabideen norainokoari, funtzionamendu-prozesuei eta abian jarritako jardueren emaitzen balorazioari buruzko informazioa biltzen da.

B. Zerbitzuak ematen eta antolatzen parte hartzen duten pertsonekin elkarrizketak
Aztertuko ditugun instituzioetako profesionalekin elkarrizketa sakonak eta erdiegituratuak egitean oinarritzen da.

Elkarrizketa horiei esker, zenbait helburu lortu ditugu:

1. Jakitea zer zerbitzu eta baliabide dauden; horretarako, eskuragarri dagoen dokumentazioa bildu dugu.
2. Jakitea zein modutan jarduten duten instituzio horiek emakumeen aurkako etxeko tratu txarreko kasu baten aurrean.
3. Jakitea zein den tratu txarren eta/edo sexu-indarkeriaren biktima diren emakumeekin lan egiten duten pertsonen iritzia, besteak beste, gabeziei, hautematen dituzten arazoei eta baliabideen inguruko beharrei buruz.

B.1. Egindako elkarrizketen antolamendua

Guztira 5 elkarrizketa egin ditugu, guztiak profesionalei, eta, horretarako, berriazko gidoi bana egin dugu baliabide horietako bakoitzerako. Elkarrizketak honela antolatu dira:

1. taula - Egindako elkarrizketen antolamendua

FORU ALDUNDIAK (KUDEAKETA-ZERBITZUA)	
ARABAKO FORU ALDUNDIA	
Zuzendariorde Teknikoa eta Goi Mailako Teknikaria.Gizarte Ongizateko Foru Erakundea.	1
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	
Emakumea Ataleko burua. Emakumea eta Familia Zerbitzua. Gizarte Ekintza Saila	1
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	
Gizarte Langilea. Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamentua.	1
ERAKUNDE PARTE-HARTZAILEAK (ZERBITZU-EMAILEA)	
ZUTITU SL	
Zutitu SL erakundeko zuzendaritza (Araba, Bizkaia)	1
GIPUZKOAKO PSIKOLOGOEN ELKARTE OFIZIALA	
Programaren koordinazio-arduraduna	1

C. Laguntza psikologikoko programa instituzionaletan aritzen diren profesionalen zuzendutako galdeketak: Programa instituzionalen esparruan, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako tratu txarren biktima diren emakumeei laguntzen aritzen diren profesionalen emandako informazioa bildu dugu, jakiteko zein den haien iritzia indarkeriako egoera bati irteera emateko instituzioek ematen duten erantzunaren eraginkortasunari buruz, bai eta laguntza psikologikoko jardueri eta zerbitzuei buruz egiten duten balorazioa jakiteko ere.

Programa horiek kudeatzen dituzten erakundearen laguntzari esker², arlo horretan lan egiten duten 26 profesionalen erantzuna lortu ahal izan dugu.

² Zutitu SL eta Gipuzkoako Psikologoaren Elkarte Ofiziala

I.3. TERMINOLOGIA

Ebaluazio honetan, Erakunde arteko Akordioaren Jarraipenerako Batzordeak proposatutako terminologiari jarraiki³, emakumeen aurkako etxeko tratu txarrak edo emakumeen aurkako etxeko indarkeria aipatzean, honakoari egiten zaio erreferentzia: emakumearen aurkako indarkeria fisikoa, psikikoa, sexuala edo bestelakoa, era jarraituan eragiten dena uneko edo aurreko familia-harreman edo harreman afektibo baten esparruan, emakumea menderatzeko eta kontrolatzeko, eta harremanean autoritate- eta botere-jarrera mantentzeko, emakumearen osasun fisikoan edo psikikoan oinazea edo kaltea eragin dituen edo eragin ditzakeenean. Emakumeen aurkako indarkeria-mota hori da, hain zuzen ere, ebaluazio honetako azterketa-xedea.

Beste alde batetik, genero-indarkeria (GI) terminoa erabiltzen denean, bikote baten edo bikote ohi baten harremanaren esparruan gizonak emakumearen aurka gauzatzen duen indarkeriari egingo zaio erreferentzia soilik. Izan ere, horrela erabili ohi da zenbait esparrutan **1/2004 Lege Organikoa** onartu zenez geroztik.

³ "Emakumeen aurkako indarkeria. Terminologia-proposamenak" Erakunde arteko Akordioaren Jarraipenerako Batzordea, etxeko tratu txarrak edo sexu-gehiegikeriak jasan dituztenentzat arreta hobetzeko.

II. KAPITULUA – INSTITUZIOEN JARDUERAREN NONDIK NORAKOA, GENERO-INDARKERIA ETA ETXEKO INDARKERIAKO EGOERETARAKO LAGUNTZA PSIKOLOGIKOAREN GAJETAN

II.1. LEGE-ESPARRUA

Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak, Genero Indarkeriaren aurka Osoko Babesa emateko Neurriei buruzkoak, ezarritakoaren arabera, laguntza psikologikoa **gizarte-laguntza osoak** bere baitan hartzen duen betebeharrerako bat da, eta genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek dute horretarako eskubidea. Horrenbestez, honela definitzen du laguntza hori:

19. artikulua. *Gizarte-laguntza osorako eskubidea.*

1. *Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek eskubidea dute harrerako, larrialdiko, laguntzako eta artatzeko eta erabat osatzeko gizarte-zerbitzuak izateko. Zerbitzu horien antolamenduak (...) printzipio hauei erantzun behar die: arreta iraunkorra, jarduketa urgentea, zerbitzuen espezializazioa eta diziplina anitzeko profesionaltasuna.*
2. *Diziplina anitzeko laguntzak bere baitan hartzen du bereziki:*
(...)
- *Laguntza psikologikoa*
(...)
3. *Zerbitzu horiek aipaturako printzipioen eraginkortasuna bermatuko duten antolamendu-formulak hartu behar dituzte, langileak espezializatuta eta ekintzak bateratuta eta integratuta.*
4. *Zerbitzu horiek honako hauekin arituko dira koordinatuta eta lankidetzan: Segurtasun Indarrak, emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaileak, osasun-zerbitzuak eta biktimei laguntza juridikoa emateaz arduratzen diren instituzioak (...)Zerbitzu horiek beharrezkotzat jotzen dituzten neurri urgenteak eskatuko dizkiete epaileari.*
5. *Gizarte-zerbitzu horien bidez gizarte-laguntza osoa izateko eskubidea dute, halaber, adingabeek, baldin eta eraso egin dioten pertsonak guraso-ahala badu edo haren zaintza eta babespean badago. Hori guztia kontuan hartuta, gizarte-zerbitzuetan aritzen diren langileek adingabeei laguntzeko berariazko prestakuntza izan behar dute, eta genero-indarkeriako egoerak gertatzen diren*

familiatan bizi diren adingabeei kalte psikikoak eta fisikoak eragin diezazkiekeen egoerak eragotzi behar dituzte eraginkortasunez.

(...)

Uztailaren 31ko 27/2003 Legeak, etxeko indarkeriaren biktimak babesteko agindua arautzen duenak, biktimak zenbait zerbitzu eskuragarri dituela ezartzen du, eta, horietako zerbitzu bat, doako laguntza psikologikoa da.

Eusko Legebiltzarraren Legeak ere, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, VII. kapituluan emakumeen aurkako indarkeria arautzen du, eta ebaluazio honetan aztertzen ari garen gaiei dagokionez, herri-administrazio eskudunei honako hau agintzen die:

- biktimek laguntza psikologiko urgentea, doakoa, espezializatua eta deszentralizatua izan dezatela bermatzea.

Zerbitzu horiek emateko eskumenak finkatzeari dagokionez, **Gizarte Zerbitzuei buruzko urriaren 18ko 5/1996 Legea**⁴ jo behar dugu, EAEn gizarte-zerbitzuen sistema antolatzea helburu duen tresna baita. Kolektibo berezientzako baliabideak —guri dagokigun kasua da— gizarte-zerbitzu berezien mailakoak dira⁵, eta horiek sortu, kudeatu eta horien mantentze-lana, besteak beste, foru-aldundien eskumeneko egitekoa da (11. artikulua, 3. paragrafoa).

5/1996 Legea zuzenean garatzeko, **uztailaren 30eko 155/2001 Dekretua eman zen, gizarte-zerbitzuen alorreko egitekoak zehaztekoa**⁶, eta bertan tratu txarren biktimentzako laguntza psikologikoa argi garbi zehazten da. Horrenbestez, Dekretu horren 3. artikulua laguntza psikologikoa emateko programak hartzen ditu bere baitan, **foru-aldundien egitekoak** zerrendatzen dituenen. Hain zuzen, dio:

⁴ Gerora, abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, Gizarte Zerbitzuei buruzkoak, indargabetua

⁵ Lege horren bidez, gizarte-zerbitzuen sistema bi mailatan egituratzea ezarri zen: oinarritzko gizarte zerbitzuak, biztanle guztientzat; eta gizarte-zerbitzu bereziak, kolektibo berezientzat

⁶ Horrela finkatu zuen legeak erasoen eta tratu txarren biktimei laguntza psikologikoko programen inguruan foruek duten eskumena; lehendik ere gizarte-zerbitzuetako programekin lotutako eskumenak zehaztuta zeuden, "Eusko Jaurlaritzaren eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-aldundien eta Eudel erakundearen arteko Akordioan, gizarte-zerbitzuen arloko eskumenen banaketari buruzkoan", 2001eko otsailaren 8an sinatua.

1. Giza talde berezientzako zentroak eta zerbitzuak

Foru Aldundiek giza talde berezientzako zentro eta zerbitzu bereziak bermatu beharko dituzte. Horiek gizartearen beharrei erantzuteko adinako edukiera eduki beharko dute. Horretarako eskumena ematen dio gizarte-zerbitzuei buruzko 5/1996 Legearen 11.3 artikulua.

(...)

Beste giza talde kaltetu batzuentzako zentro eta zerbitzuak

1.4.1 Tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan dituztenei atentzio psikologikoa emateko programa

Tratu txarrak eta sexu-erasoak jasan dituztenei atentzio psikologikoa emateko programaren helburua da egintza horiek eragindako asaldura psikologikoak gainditzeko laguntzea, egokituz jotzen den tratamendu psikologikoa aplikatuz.

(...)

Horretarako legeak sortzeaz gain, koordinazioaren esparruan, EAEn **“Etxeko tratu txar eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei eskaintzen zaien laguntza hobetzeko erakundeen arteko akordioa”**⁷ sinatu zen 2001. urtean, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak bultzatuta eta koordinatzen duela. Akordioaren helburua etxeko tratu txarren biktima diren emakumeei ahalik eta laguntza osoena eta koordinatuena ematea da, bai osasunaren arloan, bai poliziaren, justiziaren eta gizartearen arloetan. Horretarako, jarduteko jarraibide eta irizpide batzuk ezarri dira, halako kasuetan esku hartzen duten profesionalak jarraitu beharrekoak, eta, bestalde, parte hartzen duten instituzioen artean lankidetzaren egon dadin bitarteko egonkorrak antolatu dira. Akordio horren esparruan beste protokolo sektorial batzuk egin dira, indarrean dagoen araudia behar bezala aplikatzen dela ziurtatzeko; esate baterako, **Gizarte-zerbitzuen eremuan etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren eraginkortasunerako koordinazio-protokoloa**.

Erakundeen arteko akordioak gizarte-zerbitzuen eremuan ezarritako jarduteko jarraibideetako bat hau da: “Emakumeari gogoraraziko zaio baliabide horiek erabiltzea garrantzitsua dela egoera gainditzeko, batez ere arreta psikologikoa eskaintzeko programa espezializatuen garrantzia azpimarratuko da”⁸.

⁷ Honako hauek sinatu zuten: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Fiskaltzak, hiru lurralde historikoetako foru-aldundiek, Euskadiko Udalen Elkarteak (Eudel), Legelarien Euskal Kontseiluak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Medikuen Kontseiluak.

⁸ Aipatu dugun akordioaren 29. or.

“Tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. akordioa”⁹ administrazio-izapideko azken fasean da egun; 2008ko maiatzeko zirriborro teknikoan ere agindu hori adierazten da, hau erantsita: *“Uneoro emakumearen autonomia eta autoestimua indartzeko mekanismoak sustatuko dira, baita biktimek erasotzaileen erruz jasaten duten isolamendua ekiditeko neurriak ere”*.

EAEren eremuari dagokionez, ezinbestekoa da nabarmentzea emakumeen aurkako indarkeriaren arloan gizartearen eta instituzioen esku-hartzea garatu egin dela eta aurrerapenak lortu direla; hona hemen horiek beren baitan hartzen dituzten esparruak:

- ↪ **Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeentzako Ekintza Positiboko hiru planak eta Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Plana**, Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeak eginak eta Eusko Jaurlaritzak onetsiak.

- ↪ Halaber, izaera sektorialeko berariazko protokoloak egin dira; esate baterako, **Gizarte-zerbitzuen eremuan etxeko indarkeriaren biktimak babesteko aginduaren eraginkortasunerako koordinazio-protokoloa eta etxeko indarkeriaren biktima direnak babesteko agindua** sinatu zuten 2007ko urrian, hain zuzen, honako hauek: Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak, Fiskaltzak, Gobernu Idazkariak, Probintzia Auzitegiek, Emakumeen aurkako indarkeriaren auzitegietako dekanoeak eta magistratuek, Herrizaingo Sailak, Emakundek, Abokatuen eta Prokuradoreen elkargo profesionalek, Udaltzainek, Gizarte Zerbitzuek eta Justizia Sailak. Agerian geratu da protokolo hori legearen alderdi garrantzitsuenak sistematizatzeko eta parte hartzen duten erakunde guztien arteko koordinazioa eraginkorra izateko oinarritzko tresna dela.

⁹ II. akordioa 2009/02/03 egunean sinatu zen

II.2. ANTOLAMENDU-ESPARRUA: AURREKARIAK ETA EGUNGO EGOERA

Legeak ezarritakoari jarraiki, EAEn foru-aldundiek ematen dizkiete laguntza psikologikoko zerbitzuak, nork bere lurraldean, tratu txarren biktimei. Laguntza horien hasieran Emakunde/Emakumearen Euskal Institutuak esku hartu zuen, halako laguntzak bultzatzeko eta koordinatzeko eskumena baitu.

Gipuzkoako lurralde historikoan, zerbitzu horien jatorria 1989. urtean sinatutako lehendabiziko konpromiso-akordioa da. Gipuzkoako Foru Aldundiak, Donostiako Udalak, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Emakunde/Emakumearen Euskal Erakundeak sinatu zuten akordioa, sexu-erasoen biktima diren emakumeei laguntzeko. 1992. urtean etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako ere zabaldu zen programa. 1993. urteaz geroztik gaurdaino, foru-erakundearen eta Gipuzkoako Psikologoaren Elkarte Ofizialaren (GPEO) arteko hitzarmenaren bidez ematen da programan ezarritako laguntza.

Hitzarmen horren arabera, laguntza psikologikoa deszentralizatua da, eta, horretarako, programa horietan parte hartuko duten profesionalak homologatu ziren, lurraldean zehar leku askotan laguntzen dela bermatzeko. Horrenbestez, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak arduratzen dira bizi den udalerritik gertuen dagoen profesionalera bideratzeaz emakumea.

Arabako lurralde historikoari dagokionez, 1991ko urtarrilaren 10ean sinatu zuten hitzarmena Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizate Departamenduak, Gasteizko Udalak eta Emakunde-Emakumearen Euskal Institutuak. Honela dio: *“Sexu-erasoen eta/edo tratu txar fisiko edo psikikoen biktima diren emakumeei laguntza psikologikoa emateko programa ezartzeko lankidetzeta-hitzarmena. Programa esperimental da eta urtebeteko iraupena izango du”*. Programari buruzko balorazioa ona izan zenez, instituzio berek eta Euskal Herriko Unibertsitateak hitzarmena sinatu zuten 1993. urtean, helburu hau zutela: *“Sexu-erasoen eta/edo tratu txar fisiko edo psikikoen biktima diren emakumeei laguntza psikologikoa emateko programa garatzea”*¹⁰.

Instituzioen arteko lankidetzeta-formula horrek 1996. urtera arte iraun zuen Araban. Izan ere, Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak adostu zuten data horretatik aurrera zerbitzu hori lehiaketa publikoan jartzea, eta, gaurdaino antolatutako deialdi guztietan, esleipenduna psikologia-kabinete bera izan da.

¹⁰ 1993ko urtarrilaren 13ko Agindua, Lehendakaritza, Araubide Juridiko eta Autonomi Garapenerako sailburuordearena, Eusko Jaurlaritzak parte hartzen duen hitzarmenak argitaratu egin behar direla ezartzekoa, bertan adierazita daudenak. (HEAA, 1993ko otsailaren 3koa).

Bizkaiko lurralde historikoan, zerbitzu hori emateko moduaren bilakaera antzekoa da. Sexu-erasoen eta etxeko tratu txar fisiko eta/edo psikikoen biktima diren emakumeei Laguntza Psikologikoa emateko Programa 1992. urtean jarri zen abian, EHUko Psikologia Fakultateak, Emakunde/Emakumearen Euskal Institutuak eta garai hartako Bizkaiko Foru Aldundiko (BFA) Gizarte Ongizateko Departamenduak sinatutako lankidetzahitzarmenaren esparruan (1991ko abenduaren 20an sinatu zuten hitzarmena).

Zerbitzu hori emateko hainbat lankidetzahitzarmen sinatu ziren hiru erakundeen artean 1996. urtera arte. 1997ko otsailean lehiaketa publikoa antolatu zen programa hau garatzeko: **“Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak gertatzen direnean, familian esku hartuz laguntza psikologikoa emateko programa”**. Arabako lurralde historikoan bezala, Zutitu SL enpresak irabazi zuen lehiaketa, eta, gaurdaino, berak ematen du zerbitzua; izan ere, zerbitzua emateko kontratua luzatu egin zaio eta berak irabazi ditu antolatutako deialdi publikoak.

Laburbilduz, EAE guztian oso antzeko epean jarri zen abian zerbitzu hori, eta, bestalde, zerbitzu hori emateko ardurak kanpoko erakunderen baten esku uztea ere antzeko aldiak erabaki zuten. Dena dela, lurraldeen artean badira hainbat desberdintasun, erakunde kudeatzaileen eta zerbitzua ematen duten erakundeen arteko harremana arautzen duen figurari definitzeko dagokionez: Arabako eta Bizkaiko foru-aldundien kasuan, lehiaketa publikoa antolatzen dute zerbitzua emango duena kontratatzeko —bi kasuetan psikologia-kabinete berak irabazi du—. Gipuzkoan, berriz, Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Psikologo Elkarte Ofizialaren artean sinatutako hitzarmen baten bitartez antolatzen da jarduera, eta, horretarako, lurraldeko profesionalen homologazioa egiten da —lehiaketa publikoaren bidez—¹¹.

Lurralde guztietan badira nabarmentzeko moduko hainbat alderdi, berberak guztietan; esate baterako, zerbitzua ematen duten erakundeek urte asko daramatzate beren eginkizuna betetzen, norik bere aldundiarekin duen koordinazioa etengabea da eta programen emaitzei buruzko balorazioa positiboa izan da —lurralde guztietan, foru-erakundeek egiten dituzte ebaluazioak—.

¹¹ 2007. urteaz geroztik, lehiaketa publikoa antolatzen da lurraldeko profesionalen homologaziorako, "bizikidetzaren eremuan tratu txarren biktima diren pertsonen laguntza psikologikoa emateko" (GAO, 138. zenbakia, 2007/07/13).

2. taula. Arabako lurralde historikoan (ALH) zerbitzua emateko formulen historiala

Urtea	Ekintza	Parte-hartzaileak
1991	Lankidetza-hitzarmena, sexu-erasoen biktima diren emakumeei laguntza psikologikoa emateko programa abian jartzeko	Emakunde Arabako Foru Aldundia Gasteizko Udala
1992	Lankidetza-hitzarmena, sexu-erasoen eta/edo tratu txar fisiko edo psikikoen biktima diren emakumeei laguntza psikologikoa emateko programa abian jartzeko	Emakunde Arabako Foru Aldundia Gasteizko Udala EHU
1993	Lankidetza-hitzarmena, sexu-erasoen eta/edo tratu txar fisiko edo psikikoen biktima diren emakumeei laguntza psikologikoa emateko programa abian jartzeko	Emakunde Arabako Foru Aldundia Gasteizko Udala EHU
1994	Aurreko hitzarmenaren luzapena	Emakunde Arabako Foru Aldundia Gasteizko Udala EHU
1995	Lankidetza-hitzarmena, sexu-erasoen eta/edo tratu txar fisiko edo psikikoen biktima diren emakumeei laguntza psikologikoa emateko programa abian jartzeko	Emakunde Arabako Foru Aldundia Gasteizko Udala EHU
1996	Lankidetza-hitzarmena, sexu-erasoen eta/edo tratu txar fisiko edo psikikoen biktima diren emakumeei laguntza psikologikoa emateko programa garatzeko	Emakunde Arabako Foru Aldundia Gasteizko Udala EHU
1997-gaurdaino	Lehiaketa publiko bidezko esleipenak, zerbitzua emateko	Arabako Foru Aldundia Gasteizko Udala Zutitu SL erakunde esleipenduna

3. taula. Bizkaiko lurralde historikoan (BLH) zerbitzua emateko formulen historiala

Urtea	Ekintza	Parte-hartzaileak
1991	Lankidetza-hitzarmena, sexu-erasoen eta/edo etxeko tratu txar fisiko edo psikikoen biktima diren emakumeei laguntza psikologikoa emateko programa abian jartzeko	Emakunde Bizkaiko Foru ALdundia EHU
1993	Lankidetza-hitzarmena, sexu-erasoen eta/edo etxeko tratu txar fisiko edo psikikoen biktima diren emakumeei laguntza psikologikoa emateko programa abian jartzeko	Emakunde Bizkaiko Foru Aldundia EHU
1994	Lankidetza-hitzarmena, sexu-erasoen eta/edo etxeko tratu txar fisiko edo psikikoen biktima diren emakumeei laguntza psikologikoa emateko programa abian jartzeko	Emakunde Bizkaiko Foru Aldundia EHU
1995	Aurreko hitzarmenaren luzapena	Emakunde Bizkaiko Foru Aldundia EHU
1996	Lankidetza-hitzarmena, etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak gertatzen direnean, familian esku hartuz laguntza psikologikoa emateko programaren zerbitzua emateko	Emakunde Bizkaiko Foru Aldundia EHU
1997-gaurdaino	Lehiaketa publiko bidezko esleipenak, zerbitzua emateko.	Bizkaiko Foru Aldundia Zutitu SL erakunde esleipenduna

4. taula. Gipuzkoako lurralde historikoan (GLH) zerbitzua emateko formulen historiala

Urtea	Ekintza	Parte-hartzaileak
1989	Konpromiso-akordioak, sexu-erasoen biktima diren emakumeei laguntza psikologikoa emateko programa abian jartzeko	Emakunde Gipuzkoako Foru Aldundia Donostiako Udala EHU
1992	Lankidetzeta-hitzarmena, sexu-erasoen eta etxeko tratu txar fisiko eta/edo psikikoen biktima diren emakumeei laguntza psikologikoa emateko programa abian jartzeko.	Emakunde Gipuzkoako Foru Aldundia Donostiako Udala EHU
1993	Lankidetzeta-hitzarmena, tratu txarren eta erasoen biktima diren emakumeei laguntza psikologikoa emateko programa abian jartzeko	Gipuzkoako Foru Aldundia Gipuzkoako Psikologoak Elkarte Ofiziala (GPEO)
1997	Beste hitzarmen bat	Gipuzkoako Foru Aldundia GPEO
2004	Beste hitzarmen bat	Gipuzkoako Foru Aldundia GPEO
2007	Profesionalen homologazioa, zerbitzua emateko	Gipuzkoako Foru Aldundia
2008	Beste hitzarmen bat	Gipuzkoako Foru Aldundia GPEO

Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek dekretuak ematearen alde egin dute, programa kudeatzeko oinarrizko tresna izan daitezzen. Lehendabizikoari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiaren 233/2007 Foru Dekretua, abenduaren 10ekoa, tratu txarrak eta sexu-erasoak gertatzen direnean, familian esku hartuz laguntza psikologia emateko programa, Gizarte Ekintza Sailarena, arautu duena (BAO, 2007/12/24). Eta bigarrenari dagokionez, Gipuzkoako Foru Aldundiaren 45/2004 Foru Dekretua, maiatzaren 18koa, bizikidetzaren eremuan tratu txarrak hartu eta/edo sexu-askatasunaren kontrako ustezko delituak jasan dituztenentzako Laguntza Psikologikoko Programa arautzekoa (GAO, 2004/06/02). Bi dekretu horiek, besteak beste, programaren zerbitzuak, pertsona onuradunak, zerbitzuak jasotzeko baldintzak eta jarraitu beharreko prozedura zehazten dituzte.

III. KAPITULUA – BALIABIDEEN NORAINOKOA

III.1. BALIABIDEEN DESKRIPZIOA

III.1.1. Programen edukia

Aztertzen ari garen programek ematen duten laguntza psikologikoa ez da bakarrik **genero-indarkeriaren** biktima diren emakumeekin esku-hartzeko, hau da, Osoko Legeak ezarritakoaren arabera:

“indarkeria, hain zuzen, emakumeenganako diskriminazioa, desberdintasun-egoera eta botere-harremana gizonezkoen aldetik, ezkontideek edo ezkontide izandakoek edo nahiz elkarrekin ez bizi emakumezkoarekin antzeko afektibitate-harremana dutenek erabiltzen dutena” (1.1. artikulua)

baizik eta **emakumeen aurkako** indarkeria-egoera guztietarako, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak dioen moduan:

“... sexuaren ziozko edozein ekintza, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke. Jokaera horien artean sartuko dira emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan” (50. artikulua)

familia barruan gertatzen direnak (sexu-erasoen kasuan familiaz kanpokoak ere bai). Hala ere, programen esparruan tratatutako kasu gehienak, bikotekideak edo bikotekide ohiak emakumeei eragindako tratu txarreko egoerei aurre egiteko izan dira; baina zerbitzua ere ematen zaie, halaber, gizonezko erasotzaileei, afektuzko harremanean tratu txarren biktima diren neska nerabeei eta tratu txarren biktima diren emakumeek dituzten adingabeei, emakumeak guraso-ahala badu edo haren zaintza eta babespean badago. Gainera, zeharkako biktimentzako laguntza ere hartzen dute beren baitan programek; hau da, programaren bidez laguntza jasotzen ari diren biktimen senideei laguntzeko zerbitzuak.

Hain zuzen ere, lurralde historiko bakoitzeko programa honako hauetan datza:

Arabako Foru Aldundia.

Programaren esparruan ematen diren zerbitzuak:

- Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako laguntza psikologikoa (banakako tratamendua eta taldeko terapia).
- Familia barruan zein kanpoan eta duela gutxi edo aspaldi sexu-erasoen biktima diren edo izan diren emakumeentzako laguntza psikologikoa.
- Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeek dituzten seme-alaba adingabeentzako laguntza psikologikoa
- Etxean tratu txarrak eragiten dituztenentzako laguntza psikologikoa.

Bizkaiko Foru Aldundia.

Abenduaren 10eko 233/2007 Foru Dekretuaren bidez araututako **Tratu txarrak eta sexu-erasoak gertatzen direnean, familian esku hartuz laguntza psikologia emateko programa**¹², Gizarte Ekintzako Saileko Emakumea eta Familia Zerbitzuak kudeatzen duen programen, zerbitzuen eta laguntzen katalogokoa da. Programa global zabala da¹³, eta hiru kolektiboren eta horiek dituzten arazoren inguruan garatzen da eta hiru azpiprogrametan antolatuta dago:

- Ezkontza- edo bikote-haustura bizi duten pertsonentzako programa klinikoa.
- Familiako indarkeria-kasuetarako eta sexu-erasoen biktima helduentzako (emakumeak eta gizonak) programa klinikoa: etxeko indarkeriaren eta/edo sexu-erasoen biktimentzako zein tratu txarrak ematen dituzten eta/edo abusuzko sexu-portaerak dituztenentzat da.
- Familian bertan edo kanpoan tratu txarren eta/edo sexu-erasoen biktima diren adingabeentzako programa klinikoa.

¹² Abenduaren 10eko 233/2007 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiarena, tratu txarrak eta sexu-erasoak gertatzen direnean, familian esku hartuz laguntza psikologia emateko Gizarte Ekintzako Saileko programa arautzekoa (BAO, 2007ko abenduaren 24a).

¹³ GIZARTE EKINTZA SAILA, 2007ko Memoria, Bizkaiko Foru Aldundia, <http://www.bizkaia.net>

Hau da programaren helburua: emakumeen, gizonen eta adingabeen aurkako tratu txarrek eta erasoek eragindako ondorioei aurre egitea, eta indarkeriazko portaerak aldatzea. Dekretu araugileak ezartzen duenez, esku-hartzea honetan datza:

- Diagnostikoa eta balorazioa.
- Banakako laguntza psikologikoa: banakako tratamenduak, laguntza psikologikoa emateko eta pertsonentzako psikoterapiarako.
- Lagundutako kasuen jarraipena.
- Lagundutako kasuei buruzko ebaluazioa.

Hona hemen zerbitzuak laguntzen dituen kolektiboak:

- Tratu txar fisikoen eta/edo psikikoen, eta/edo sexu-erasoen biktima diren emakumeak (banakako tratamendua eta taldeko terapia).
- Tratu txar fisikoen eta/edo psikikoen, eta/edo sexu-erasoen biktima diren gizonak.
- Tratu txarrak ematen dituzten pertsonak.
- Familian bertan eta kanpoan tratu txar fisikoen eta/edo psikikoen biktima diren adingabeak, Gizarte Ekintzako Sailak babestu behar ez dituen kasuetan¹⁴.

Gipuzkoako Foru Aldundia.

Bizikidetzaren eremuan tratu txarrak hartu eta/edo sexu-askatasunaren kontrako ustezko delituak jasan dituztenentzako Laguntza Psikologikoko Programak honako hauek laguntzen ditu:

- Bizikidetzaren eremuan tratu txarren biktima diren pertsonak –afektuzko harremanean gertatzen direnak, alegia–.
- Sexu-askatasunaren kontrako ustezko delituen biktima diren pertsonak.
- Erasotzaileak (beren borondatez edo epaileak hala erabaki duelako, baldin eta bi urte baino gutxiagoko kartzela-zigorra badute).

¹⁴ Aita eta/edo ama gai direnean guraso-ahalak berekin dakartzan betebeharrak betetzeko.

III.1.2. Giza baliabideak

2007. urtearen joanean, ehun profesional inguru aritu dira laguntza psikologikoa ematen EAEn emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean. Lurralde historiko bakoitzeko profesional-kopuruari dagokionez, zerbitzuen antolaketaren arabera banatuta daude.

Gipuzkoako lurralde historikoan, zerbitzua emateko homologatuta dauden profesionalen sarea 86 pertsonak osatzen dute, eta denera 97 kontsultatan aritu dira. Horietatik, 53 emakumeak dira, %60 baino pixka bat gehiago.

Arabian emakumezko bost psikologok eman dute laguntza psikologikoa. Bizkaian programak bere baitan hartzen dituen kasu guztiertzako laguntza ematen duen kabinetea hamabi profesionalak osatzen dute, eta bat izan ezik, terapiako taldea osatzen duten gainerakoak emakumeak dira.

5. taula. Laguntza psikologikoko aldundietako programetan parte hartzen duten profesionalak

	Emakume-kopurua	Gizon-kopurua	Profesional-kopurua guztira
Araba	5	0	5
Bizkaia	11	1	12
Gipuzkoa	53	33	86*

*programan parte hartzeko homologatuta. Dedikazioa lagundutako kasu-kopuruaren arabera da.

Espezializazioa

Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima direnei zerbitzu profesionalak emateari dagokionez, biktima horiei ematen zaien laguntza hobetzeko erakundeen arteko akordioaren bitartez sortu zen Jarraipen Batzordeak akordio bat ezarri zuen 2005eko apirilean. Horren arabera, zerbitzu publikoen mendeko programen barruan biktimei zuzenean laguntza ematen dieten profesionalak beren eginkizunak betetzeko bete behar dituzten ezaguerei, esperientziei eta/edo gaitasunei buruzko berariazko baldintzak eskatzea ezarri zen.

Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiek zerbitzua arautzeko norik bere foru-dekretuan ezarri dituzte laguntza psikologikoa ematen duten profesionalak bete behar dituzten baldintzak.

Hiru programetan laguntza psikologikoa ematen duten profesionalak Psikologiako lizentziadunak eta Psikologia Klinikoko prestakuntza izan behar dute, eta gutxienezko esperientzia izan behar dute familian esku-hartzeko psikologo edo psikologia klinikoko edo

psikoterapeutako lanetan, eta tratu txar fisiko eta/edo psikikoen biktima diren pertsonen laguntzen esperientzia izan behar dute, baita tratu txarrak ematen dituzten pertsonen laguntzen ere. Horiek guztiak egiaztatu egin behar dituzte. Aurretiaz izan beharreko esperientziari dagokionez, Arabako kasuan bi urtekoa da, Bizkaian hiru urtekoa eta Gipuzkoan laukoa.

III.1.3. Baliabide Materialak

Azpiegiturak

Araban, foru-programa lurralde osorako da eta Treviñoko Konderriaren enklabea ere bere baitan hartzen du. Horretarako, bi laguntza-gune ditu, bata Gasteizen eta bestea Laudion. Horrela, biztanleen %86k zerbitzua hurbil dutela bermatuta dago, Arabako lurraldean bizi diren biztanleak ez baitaude oso sakabanatuta. Izan ere, biztanleen hiru laurden Gasteiz hiriburuan bizi dira, eta %10 Aiarako eskualdean, Laudio eta Amurrio udalerriak dauden eskualdean, hau da, lurraldeko biztanle gehien dituzten bigarren eta hirugarren udalerrietan¹⁵. Gainerako eskualdeen biztanleriari dagokionez (biztanle guztien %14 baino gutxiago), badira laguntza-gune horietara joateko arazoak dituztenak, garraio publikorik ez dutelako, eta, beraz, foru-erakundeak egoera horri aurre egiteko bitarteko guztiak jarri ditu eta desplazamendu-gastuak ordaintzen ditu.

Foru Aldundiaren eta Udalaren arteko lankidetzak-akordio bati jarraiki ematen da laguntza-zerbitzua Laudion, eta kontsulta horietarako egokituta dagoen lokal bat uzten dio Udalak.

6. taula. Laguntza-zentroak Arabako lurralde historikoan

Udalerrria	Laguntza-zentroyen kopurua	Jarduera-eremuak
Gasteiz	1	Arabako lurralde osoa eta Treviñoko Konderria
Laudio	1	

Bizkaian, eredu zentralizatu bati jarraiki eman ohi da zerbitzua, Bilbon duela laguntza-gune bakarra. Hala ere, azken urteetan egoera moldatzeko ahalegina egiten ari dira. 2006. urtean, zerbitzua deszentralizatu egin da, Lea-Artibaiko Mankomunitatea (25.219 biztanle),

¹⁵ Iturria: EIN. Biztanleria datuak 2008/01/01, 2124/2008 Errege Dekretua, abenduaren 26koa

lurraldearen ekialderago dagoen zonaldea, osatzen duten udalerriek laguntza izan dezaten. Mankomunitateak lagundu egiten du, erakundeak Markina-Xemein udalerrian dituen lokaletan ematen baita laguntza.

Jarduera-ildo horretan, Bizkaiko Foru Aldundiak zerbitzua deszentralizatzeko konpromisoa hartzen duela adierazi du, *Erakundeen arteko Akordioa* (2008) aplika dadin parte hartzen duten instituzioek ezarri beharreko neurriak jasotzen dituen dokumentuan¹⁶; hona hemen ezarritako hamahiru neurri horietako batek ezartzen duena:

“7.9. Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak gertatzen direnean, familian esku hartuz laguntza psikologikoa emateko programa bultzatzea, eta deszentralizazio-prozesua egiten jarraitzea, Bizkaiko lurralde historikoko eskualdetakoren batean bizi, desplazatzeko arazoak dituzten eta tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeek eta adingabeek laguntza-zerbitzua beren geografia-eremuan izan dezaten, eta laguntza psikologikoko zerbitzua eskuragarriago izan dezaten”.

Horrezaz gain, aldundiaren gai-zerrendan adierazita dago Bizkaiko lurraldearen mendebalderago dagoen eskualdean, Enkarterrietan, epe motzean zerbitzua emango dela.

7. taula. Laguntza-zentroak Bizkaiko lurralde historikoan

Udalerria	Laguntza-zentroen kopurua	Jarduera-eremuak
Bilbo	1	Bizkaiko lurralde osoa, Lea-Artibai M. izan ezik
Markina-Xemein	1	Lea-Artibai Mankomunitatea: Amoroto, Berriatua, Etxebarria, Gizaburuaga, Ispaster Lekeitio, Markina-Xemein, Mendexa, Ondarroa, Ziortza-Bolibar, Aulesti, Munitibar

Gipuzkoan, Foru Aldundiaren eta GPEOaren arteko lankidetzaz hitzarmenaren bidez antolatuta dago zerbitzua, eta lurraldean zehar banatuta dauden hainbat laguntza-gunek osatzen dute sistema. Egun, 15 udalerririk hartzen ditu, zazpi eskualdetakoak, eta Gipuzkoako biztanleen %68,8 hartzen ditu. Horien artean daude biztanle gehien dituzten udalerririk (Donostia, 184.248 biztanle; Irun, 60.914 biztanle) bai eta 10.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerririk ere (Ordizia, 9.758 biztanle; Urretxu, 6.812 biztanle).

¹⁶ ERAKUNDEEN ARTEKO AKORDIOAREN JARRAIPEN BATZORDEA, “Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei eskaintzen zaien laguntza hobetzeko Erakundeen arteko Akordioa aplikatzeko neurriak (2008)”. Helbide honetan eskuragarri: <<http://www.emakunde.es>>

Gipuzkoan zerbitzua emateko dauden 97 kontsultetatik, erdia baino zertxobait gehiago Donostia hiriburuan daude (54 erakunde), eta, hortaz, Donostialdea da kopuru-aldeetik da orokorrean zerbitzua emateko ondoen hornituta dagoen eskualdea, 61 erakunde baititu. Bigarren postuan, Irun udalerria dago, Bidasoa Behea eskualdearentzako 10 kabinete baitaude laguntza emateko. Gainerako erakundeei dagokienez, Urola kostan 6 daude; Deba Behean, 8; Goierriin, 5; Deba Garaian 4; eta Tolosaldean, 3.

8. taula. Laguntza-zentroak Gipuzkoako lurralde historikoan

Udalerria	Laguntza-zentroen kopurua ¹⁷	Jarduera-eremuak
Andoain	1	Gipuzkoako lurralde osoa
Arrasate	3	
Azpeitia	1	
Beasain	1	
Bergara	1	
Donostia	53	
Eibar	8	
Erreneria	3	
Hernani	3	
Irun	10	
Ordizia	2	
Pasaia	1	
Tolosa	3	
Urretxu	2	
Zarautz	5	

Lurraldeko gainerako udalerrietan bizi eta laguntza behar dutenak, izendatu zaion laguntza-kabinetea dagoen udalerrira desplazatzen dira gehienak, hurbiltasuna baita terapeuta izendatzeko irizpideetako bat —bakarra ez bada ere—.Laguntza behar duenak desplazatzeko arazoak baditu, bizi den udalerriko Udalak laguntzen digu, udalerriko lokaletan terapia-saioak egin ahal izan ditzan.

¹⁷ Homologazioa duten profesionalak/erakundeak (2008)

III.1.4. Prozesuen deskripzioa

Zerbitzua jasotzeko baldintzak

Erabiltzaileak bete beharreko baldintzei dagokienez, tratu txarren biktima diren emakumeei laguntza psikologikoa emateko foru-programek baldintza bakarra ezartzen dute: eskaera egin duen lurralde historikoan bizitzea. Baliabidea eskuratu ahal izango dute, nahiz eta administrazio-egoera irregularra izan, aurretik salaketa jarria eduki edo babesteko agindua izan.

Bideratzeko instantziei dagokienez, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek zeregin garrantzitsua dute baliabidea eskuratzeari dagokionez, nahiz eta Gipuzkoan bakarrik izan bide bakarra horiek eskuratu ahal izateko.

Lurralde horretako zerbitzua antolatzeko moduari dagokionez, gizarte-langileak ezinbesteko zeregina du, laguntza jasotzeko premia duen ala ez erabakitzen baitu erabiltzailearekin egon ondoren, eta, horrezaz gain, laguntza emateko homologatuta dauden terapeuten artean bat izendatzen baitio. Gipuzkoan, etxeko tratu txarren biktima diren emakumeei laguntza emateko, positibotzat hartzen da gizarte-laguntzailea erreferentzia izatea, biktimarentzat zein hari laguntzen parte hartzen duten profesionalentzat, laguntza ematen zaion bitartean emakumearen egoera nolakoa den osotasunean dakielako.

Horrenbestez, pertsonaren bat zuzenean jartzen bada harremanetan GPEOarekin edo Gipuzkoako Foru Aldundiarekin programarako hitz-ordua eskatzeko, haiek Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara bideratzen dute prozesuari ekin diezaion. Halaber, Elkarteak elkargokide diren profesionalei —zerbitzua emateko homologazioa izan edo ez— programaren zerbitzua jasotzeko lurraldean ezarrita dagoen prozedurari buruzko informazioa ematen die. Hau da, jakinarazten diete gizarte-zerbitzuetako langileekin elkarriketa bat izan behar dutela hasieran, kabineteetan lan egiten dutenek tramitearen berri izan dezaten, eta, horrela, gizarte-zerbitzuetako zentrorra arazo horrekin joan den pertsonari lagun diezaioten.

Laguntza psikologikoko baliabideak eskuratu ahal izateko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak giltzarri izateari dagokionez, ARARTEKO erakundeak 2003ko “Emakumeen aurkako etxeko tratu txar psikologikoen aurrean instituzioen erantzuna EAEn” haren txostenean gomendatu zuen, laguntza psikologikoko zerbitzuak zuzenean izateko aukera eman behar zaiela

emakumeei, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak izan gabe horiek eskuratzeko ate bakarra. Gomendio hori eman zuen, hain zuzen, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetara joateko oztoporen bat —soziala zein psikologikoa— duten emakumeei laguntzeko.

Araba eta Bizkaiaren kasuan, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuez (OGZ) gain, programa zuzenean eskuratzeko beste aukera batzuk ditu sistemak. 2007. urteko datuen arabera, Arabako lurraldean laguntza eman zaien emakumeen herena OGZetatik zetorren; izan ere, nahiz eta ezinbestez bete beharreko baldintza ez izan, emakumeari gomendatzen zaio gizarte-zerbitzuak direla hark zerbitzua jasotzeko bide egokiena. Bizkaiaren kasuan, bide horretatik etorritakoak %16 baino gutxiago izan ziren, eta 2007ko programan laguntza jaso zuten emakumeen laurden bat baino gehiago gizarte-zerbitzuetakoak ez ziren beste profesional batzuek bideratuta joan ziren (besteak beste, osasun- eta polizia-alorrekoak eta judizialekoak).

Bi lurralde horietan, halaber, zuzenean laguntzen zaie programan emakumeei, aurretik profesionalak esku hartu gabe. Bi lurralde historikoetan telefono-zenbaki bat dute¹⁸, eta hara deituta edozein pertsonak eska eta lor dezake lehen hitz-ordua programan.

Arabako lurralde historikoa

Telefono-zenbakia: 945 151 015

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Informazio eta Gizarte Arretarako Bulegoa

Bizkaiko lurralde historikoa

Telefono-zenbakia: 944 06 80 00

Emakumea eta Familia Zerbitzua. Gizarte Ekintzako Saila

Araban eta Bizkaian zerbitzua ematen duen laguntza psikologikoko kabineteak baloratzen du programarekin bat datorren eskaera, eta beste erakunde egokiagoetara bideratzen ditu eskaerak, programak eskaintzen dituen laguntzekin bat ez badatoz.

Laguntza-zerbitzua jasotzeko denbora-epetegi dagokienez, egun, ez dira apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuak ezarritako gehieneko epeak gairatzen. Dekretu horren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaile eta profesionalen eskubide eta

¹⁸ "Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko gida" argitaratu zuten Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak, eta emakumeei laguntza psikologikoa emateko zerbitzuaren aurkezpenean, harremanetarako telefono-zenbakiarekin batera, honako hau zehazten da: "zerbitzu hau Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bidez eskatzea gomendatzen da..." (15. or.).

betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea onartu zen¹⁹, eta hona hemen gizarte-zerbitzuen erabiltzaileek dituzten beharren ebaluazioari buruz ezarritakoa:

9. artikulua.- Beharrak ebaluatzea.

1.- Gizarte-zerbitzuen erabiltzaileek ondoko eskubidea dute: arrazoizko epe batean, euren beharren ebaluazioa egin dadin, premia horiei ondoen egokitzen zaizkien zerbitzu eta prestazioak eskuratu ahal izatea bermatzeko, hala bada.

(...)

3.- Erabiltzaileek eskubidea dutenez euren premiak ebalua diezazkieten, gizarte-zerbitzuek, eskubide hori bermatzeko, esku hartzeko arrazoizko epeen barruan burutu beharko dute euren jarduna, eta inolaz ere ez da gaindituko 7 eguneko balioduneko gehieneko epea lehen harremanaren eta gizarte-zerbitzuetako profesionalarekin izandako lehen elkarrizketaren artean, ezta gehieneko 40 egun balioduneko epea ere, elkarrizketaren eta ebaluazioaren amaieraren artean.

Premia larrietan, hasierako harremanaren eta ebaluazioaren amaieraren artekoaldiak inola ere ez du gaindituko 15 egun balioduneko epea, epe horretan izan daitezkeen oinarrizko beharrei berehala erantzuteko behin-behineko irtenbideak gauzatu behar badira ere.

Hiru lurraldeetan bermatu egiten da ez direla Dekretuak ezarritako hamabost egunak gaindituko lehendabiziko hitz-ordua emateko; are gehiago, Bizkaian lehen hitz-ordua emateko gehieneko epea astebetekoa da.

Premia larriko balorazioa duten kasuetan, laguntza lehenago jasotzen dute. Araban eta Bizkaian hori beteko dela bermatuta dago, ebaluatu beharreko gai-zerrendan beti gordetzen baitute tarte bat, halako egoeretarako. Gipuzkoan, berriz, terapeutek laguntzen dute, denbora-epe horretan lagunduko dela bermatzeko.

¹⁹ 64/2004 Dekretua, apirilaren 6koa, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-zerbitzuen erabiltzaile eta profesionalen eskubide eta betebeharren gutuna, eta iradokizunen eta kexen araubidea onartzekoa (EHAA, 2004/04/23)

Esku-hartzea: ebaluazioa, laguntza eta kasuen segimendua

Gipuzkoan zerbitzua antolatzeke modua eta Araba eta Bizkaikoa desberdinak direnez, laguntzaren inguruko zenbait desberdintasun ere badira, tratamendu-teknikak aplikatzeari dagokionez.

Gipuzkoan, tratamendurako esparru teoriko adosturik ez dago, eta laguntza ematen duten terapeuta homologatuen sarean hainbat joera daude; tratatu beharreko helburuei buruzko irizpide komunak badituzte, GPEOaren eta Foru Aldundiaren koordinazioari esker ezarriak. Eredu hori dute, hain zuzen, lagundutako kasuei buruz profesionalek egindako txostenak aztertu zituelako Elkartek, eta hainbat terapia aplikatzean alderdi batzuk komunak zirela hauteman zuelako. Helburu horiek jasotzeko fitxa bat diseinatu da, bai eta une oroko laguntzaren balorazioa jasotzeko ere. Gero, terapeutak Elkarteari bidaltzen dio fitxa hori, kasua bideratu duen Gizarte Zerbitzuari emandako azken txostenarekin batera.

Tratamendu-teknika horiek guztiak maiatzaren 18ko 45/2004 Foru Dekretuak ezarritako esparruan aplikatzean dira. Foru Dekretu horrek programa arautzen du, eta biktimarentzako laguntza psikologikoari buruz dio:

1.1. Biktimarentzako laguntza psikologikoa:

1.1.1. Lehenengo fasea, azterketa eta balorazioa: Azterketa, balorazioa eta proposamena egiteko hiru ordu izango dira, gehi gizarte-ongizateko zerbitzuekin koordinatzeko beste ordubete. Fase honetan, hasierako diagnostiko bat egingo da, eta hor zehaztuko da eskatzaileak bizikidetzaren eremuan tratu txarrak hartu eta/edo sexu-askatasunaren kontrako ustezko delituak jasan dituen eta, ondorioz, tratamendu terapeutiko espezializatua berarentzat egokia den.

1.1.2. Bigarren fasea, tratamendu terapeutikoa: 45/60 minutuko 18 saio izango dira gehienez, gehi udaletxeko gizarte-zerbitzuekin koordinatzeko ordubeteko bi saio. Kasu berezietan tratamendu-saioen kopurua gehitu ahal izango da.


(...)

5.5. Baimenean adierazitako saio guztiak egindakoan bukatuko da tratamendua. Saio horiek burutu eta gero, artean aurreikusitako helburuak bete ez badira eta tratamendua luzatu egin behar dela uste bada, eskaera egingo zaio berriz Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamenduari, saio-kopurua gehitzeko baimena eman dezan. Nolanahi ere, saio gehigarriak ezingo dira izan Esku Hartzeko Proiektuan beharrezkotzat jotako %50 baino gehiago.

Tratamendua luzatzeko eskaerak GPEOak eta GFAk baloratzen dituzte. Ibilbidea eta proposatuko helburuak azertu ondoren, tratamendua egiten jarraitzea egokia dela erabakitzen badute, , bederatzi saio behiago egiten dira, batez beste. Beste kasu batzuetan, gaixoa Osakidetzako Osasun Mentaleko zerbitzura bideratu da, edo Familietan Esku-hartzeko Udal Zerbitzura; nolahi ere, halako egoeretan ere ematen da tratamendua luzatzeko baimena, biktima baliabide horietan laguntzen hasi bitartean, laguntzen jarraitzeko.

Jarraian erantsi dugun grafikoan, 1993. urteaz geroztik programaren esparruan eskatutako luzapen-eskeren bilakaera nolakoa izan den ikus daiteke.

1. grafikoa. Gipuzkoako Programaren esparruan lagundutako kasuen eta eskatutako luzapenen bilakaera²⁰ (1993-1997)



Iturria: Guk egina, Bizikidetzaren eremuan tratu txarrak hartu eta/edo sexu-askatasunaren kontrako ustezko delituak jasan dituztenentzako Laguntza Psikologikoko Programaren 2007ko memorian jasotako datuak oinarri hartuta

Araba eta Bizkaiaren kasuan, laguntza kabinete bakar batek ematen duenez, errazagoa da programan laguntza jasotzen duten kasu guztiek esparru terapeutiko homoginoa izatea.

²⁰ Tratu txarren arloan (biktimak eta erasotzaileak) eta sexu-erasoen arloan (biktimak) programaren bidez lagundutako kasu guztiak zenbatu dira

Bi lurralde horietan tratamendu psikologikoa emateko aplikatzen den esku-hartzeko protokoloak ezarritakoaren arabera, hasierako tratamendurako 16 saio egin behar dira, gehi hasierako ebaluaziorako denbora eta segimendua egiteko denbora. Protokoloa, dena dela, erabat malgua da eta erabiltzailearen premiak kontuan hartzen dira; horrenbestez, tratamendurako saio-kopurua, premia horien arabera, behar adina luza daiteke, gaixoaren egoera psikologikoa hobera egiten duen arte. Bizkaian Programa arautzen duen Foru Dekretuak²¹ honela zehazten du:

8. artikulua.- Iraupena

Esku-hartzea aztertutako kasu bakoitzaren ezaugarrietara eta bilakaerara egokituko da. Indarraldia balorazio-fasearekin hasiko da eta jarraipen-fasea amaitu arte luzatuko da.

Tratamendua amaitzen denean, segimendua egiten da urtebetez. Horretarako, hitz-orduak antolatzen dira, bata bestearen artean gero eta denbora-epe handiagoak ezartzen direla, eta erabiltzaileak egindako laguntza-eskaerei aurre egiteko erakundeak duen gaitasunaren arabera. Segimendua egiten den bitartean, esku-hartzeren bat egitea ezinbestekoa izan daiteke, esate baterako, prozesu judizialen batean laguntzeko, seme-alabekin dituen arazoak konpontzen laguntzeko...

Banakako tratamendu-saioez gain, Araban eta Bizkaian taldeko saioak ere egiten dira programan. Talde itxiak izaten dira, laguntza ematen duen taldeak egokituz jotzen dituen pertsonen parte hartzen baitute. Programako gainerako jarduerak bezala, saioetarako eta helburuetarako protokoloak ezarritakoari jarraiki egiten dira.

Koordinazioa

Programa terapeutikoak eta segimenduak eraginkortasunez gauza daitezen egindako esku-hartzeetan, koordinazio-lana egiten da beste zerbitzu batzuekin, gizarte-arloko esku-hartzeen esparruan zein ekintza judizialen esparruan, baldin eta hori beharrezkoa bada eta/edo hala egitea eskatzen bada. Koordinazio-lan hori ohikoa da, bai kasuak beste erakunde batzuek bideratzen dituztenean programara, bai terapeutak esku-hartzen duenean, bai eta azken hori amaitzen denean ere.

Koordinazio-lan hori ohikoagoa da, besteak beste, zerbitzu hauekin: Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak eta Espezializatuak, Biktimari Laguntzeko Zerbitzua, Auzitegiko Klinika eta

²¹ Abenduaren 10eko 233/2007 Foru Dekretua, Bizkaiko Foru Aldundiarena, tratu txarrak eta sexu-erasoak gertatzen direnean, familiar esku hartuz laguntza psikologia emateko Gizarte Ekintzako Saileko programa arautzekoa (BAO, 2007/12/24).

Auzitegiko Talde Psikosoziala, Osakidetza (psikiatria eta pediatriako kontsultak eta medikuntza orokorra), Kartzeletako Gizarte Zerbitzuak, Zigor-betearazpenetan eta Birgizarteratzeetan laguntza Emateko Zerbitzua eta Zigor-arloko Bitartekotza Zerbitzua.

Foru-aldundien eta zerbitzua ematen duten erakundeen arteko koordinazio-lanetarako lanabes hauek erabiltzen dira: aurrez aurreko edo telefono-bidezko elkarrizketak, bidalitako txostenak eta komunikazioak —idatziak eta bitarteko telematikokoak erabilia—.

Azkenik, koordinazio-lanari buruzko atal honetan ezinbestekoa da adieraztea askotan beharrezkoa izaten dela hainbat erakunderen eta profesionalen txostenak, batez ere, eremu judizialekoak eta epaiketetan adituek ematen duten laguntzari buruzkoak.

Kalitate-prozesuak

Etxeko tratu txarrak eta sexu-erasoak gertatzen direnean, familian esku hartuz laguntza psikologikoa emateko programaren enpresa esleipenduna Bizkaian eta Araban Zutitu SL da. Enpresa horrek 2004ko irailaz geroztik du Kalitatea Kudeatzeko Sistema ezarrita, eta UNE-EN –ISO 9001:2000 arauak ezarritako betekizunei jarraiki, kalitate-ziurtagiria izaten jarraitzen du 2008ko irailaren 23an auditoria egin ondoren.

Tratamendua amaitzen denean, laguntza psikologikoko programetan Araban eta Bizkaian lagundutako emakumeek programari buruzko ebaluazioa egiten parte partzen dute. Horretarako, “Tratamenduarekiko satisfazioari buruzko galdetegia” (Larsen, Attkinson, Hargreaves eta Nguyen, 1979). Galdetegiak 8 item ditu hiru ataletan banatuta: zerbitzuaren kalitatea, premien betetze-maila eta arazoei aurre egiteko eraginkortasuna.

Gipuzkoan, oraingoz, ez dute programaren kalitateari buruzko inolako ziurtagiririk, ez eta zerbitzua jaso duten pertsonen satisfazioa neurtzeko lanabesik ere. Tratamendu terapeutikoari buruzko ebaluazioa egiteko lanabesa prestatzea aurreikusita dago.

Informazioaren kudeaketa

Programari buruzko emaitzak ondo dokumentatzen dira, eta, horretarako, zerbitzua ematen duten erakundeek urtero bidaltzen diete memoria bat erakunde kudeatzaileei, eta informazio hori, gero, haien jarduera-memoretan eransten da.

Bizkaiko Foru Aldundiaren kasuan, programari buruzko informazioa Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiak egindako dokumentuen bidez ere ematen da ezagutzera. Behatokia kontsulta izaerako erakunde kolegiatua da, Bizkaiko Foru Aldundiak sortua,

Bizkaiko lurralde historikoan genero-indarkeriako egoeren errealitatea zein den jakiteko, haren bilakaera aztertze eta Bizkaian genero-indarkeriaren arloarekin zerikusia duten zerbitzuen eta laguntzen eskaintza hobetze aldera gomendioak eta proposamenak egiteko.

III.2. BALIABIDEEN ERABILERA

Esku artean duzun ebaluazioak 2008ko denbora-eremua hartzen du, eta erreferentziako azken urtetzat eskuratu ahal izan ditugun datuak 2007koak dira.

Emakume etorkinen kopuruari buruzko datuak kasu berriei dagozkie —erreferentzia-urtean hasitakoak—, ez da delitu-mota horrengatik lagundutako emakume biktima guztiei.

Araban eta Bizkaian tratu txarrak ikusteagatik zeharkako biktima diren adingabeei laguntza psikologikoa emateko prozesua, amarekin egiten diren terapia-saioen bidez egiten da, eta banakako terapia behar duela baloratzen bada ematen zaio bakar-bakarrik mota horretako laguntza. Adingabea tratu txarren zuzeneko biktima bada, beti izango ditu banakako terapia-saioak.

Gipuzkoan tratu txarren biktima diren adingabeei laguntzeko, biktima zuzenak zein zeharkakoak izan, eta lagunduko zaion emakumeak badu haren tutoretza, familia-saioak egiten dira eta ez banakakoak. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetakoek egiten dute kasuaren balorazioa eta banakako esku-hartzea beharrezkoa dela erabakitzen badute, udaleko Umeen Zerbitzura bideratzen da kasua.

Araban, 2007. urtearen joanean, etxeko tratu txarren biktima izan diren 332 emakumeri lagundu zitzairen. Laguntza-kopuruak gora egin du 2005. urteaz geroztik, urtero %22 batez beste, hain zuzen. Emandako laguntza-kopuruari buruzko zifra horretan, erreferentzia-urtean tratamendua jaso duten emakume guztiak sartzen dira, hau da, kasu berriak eta aurreko urtean tratamendua amaitu ez zuten kasuak. Zehatz-mehatz, kasu berrien kopuruak urtero %15 egin du gora, batez beste; 2005ean 140 kasu izan ziren eta 2007an, berriz, 184.

Laguntza eman zaien emakume etorkinen kasu berrien kopuruak nabarmen egin du gora; 2005. urtean kasu berrien %17 egiten zuten emakume etorkinek, eta hurrengo bi urteetan kasuen %23. Urtez urteko batez besteko hazkundera %34koa da.

Laguntza-programan parte hartu eta eraso egin zaien emakumeen tutoretzapean dauden adingabeei buruzko 2005eko daturik ez dugu. Sexuaren arabera banatutako 2006. eta 2007. urteetako datuak aztertu ditugu, eta agerian geratu da bi kasuetan laguntza-kopuruak nabarmen egin duela gora, %100a egin edo gainditu baitute.

8. taula. Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako tratu txarren biktima diren emakumeak GLHn:

	2005	2006	2007	Batez besteko gehikuntza
Tratamenduan dauden emakumeak	226	287	332	%22
Kasu berriak (urte horretan hasitakoak)	140	163	184	%15
Emakume etorkinak	24 (%17)	38 (%23)	42 (%23)	%34
Laguntza jasotzen duten adingabeak (neskak)	*	8	16	%100
Laguntza jasotzen duten adingabeak (mutilak)	*	7	16	%128

* Ez dugu daturik

Hurrengo taulan **Bizkaian** emandako laguntzari buruzko datuak adierazten dira, eta agerian geratu da hazkundera, ehunekotan, Araban baino txikiagoa dela.

2007. urtearen joanean, guztira, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako tratu txarren biktima izan diren 621 emakumeri eman zaie laguntza. 2005. urteaz geroztik kasu-kopurua %14 hazi da urtero. Laguntza eman zaien emakumeen kasu berriei dagokionez, 300 inguru izan dira; hau da, urtero %3 hazi da.

Etxeko tratu txarren biktima diren emakume etorkinen ehunekoak, delitu-mota horretako biktimen kasu berrien kopuruarekiko, %20 egiten du. Urtero %18 hazi da batez beste.

2007. urtean, 17 neskek eta 11 mutilek jaso dute laguntza psikologikoa; horiek tratu txarrak ikusteagatik zeharkako biktimak zein zuzeneko biktimak ziren. Zifra horien arabera, 2005. urteko datuekin alderatuz gero, kopuruak gora egin du, eta nesken kasuan %15 hazi da eta mutilen kasuan %77.

9. taula. Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako tratu txarren biktima diren emakumeak BLHn:

	2005	2006	2007	Batez besteko gehikuntza
Tratamenduan dauden emakumeak	480	536	621	%14
Kasu berriak (urte horretan hasitakoak)	280	281	296	%3
Emakume etorkinak	51 (%18)	46 (%16)	59 (%20)	%18
Laguntza jasotzen duten adingabeak (neskak)	13	13	17	%15
Laguntza jasotzen duten adingabeak (mutilak)	6	14	11	%77

Gipuzkoan garatutako “bizikidetzaren eremuan tratu txarrak hartu eta/edo sexu-askatasunaren kontrako ustezko delituak jasan dituztenentzako Laguntza Psikologikoko Programa” izeneko eskuratutako datuak, kasu berriak izan ezik, ez daude sexuaren arabera eta tratamendu-tipologiaren arabera bereizita.

Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako tratu txarren biktima diren emakumeen kasu berriei buruzko informazioak agerian utzi du kopuruak urtero %5 egin duela gora batez beste; 2007. urtean 236 kasu zenbatu ziren. Horietatik %18 atzerriko emakume biktimei dagozkie, eta, beraz, kopuruak urtero %2 egin du gora batez beste.

Laguntza ematen zaion emakumearen tutoretzapean dagoen eta tratu txarren biktima diren adingabeei ematen zaien laguntza familia-saioen esparrukoa da, ez banakako saioren esparrukoa, eta, beraz, adingabeei buruzko datuak ez dira bereizita jaso.

10. taula. Bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako tratu txarren biktima diren emakumeak GLHn:

	2005	2006	2007	Batez besteko gehikuntza
Tratamenduan dauden emakumeak	*	*	*	*
Kasu berriak (urte horretan hasitakoak)	221	217	236	%5
Emakume etorkinak	48 (%22)	49 (%19)	50 (%18)	%2
Laguntza jasotzen duten adingabeak (neskak)	**	**	**	**
Laguntza jasotzen duten adingabeak (mutilak)	**	**	**	**

* Sexuaren arabera eta tratamendu-tipologiaren arabera bereizitako daturik ez dugu. ** Ez dugu daturik

IV. KAPITULUA. –LAGUNTZA PSIKOLOGIKOKO PROGRAMEK EMANDAKO LAGUNTZAREN KALITATEARI BURUZKO AZTERKETA KUANTITATIBOA

Esku artean duzun txostenaren laugarren kapituluan, sexu-erasoen eta etxeko tratu txar fisikoen eta/edo psikikoen biktima diren emakumeentzako Laguntza Psikologikoko Programetan terapia-lanak egiten dituzten pertsonen egindako balorazioen azterketa bildu dugu, hain zuzen, etxeko tratu txarren biktima diren emakumeei emandako laguntzaren kalitateari buruzko balorazioena. Horretarako, programen funtzionamendua aztertu dugu, emakumeekin zuzenean lan egiten duten pertsonen ikuspegitik, eta haiek prozesuei eta emaitzei buruz egindako balorazioak bildu ditugu (galdetegiaren gidoia eranskinetan daude).

Emaitzak bi ardatzetan antolatuta aurkeztu ditugu: bata, terapeuten profila oinarri hartuta, eta, bestea, programak berak oinarri hartuta. Horietan, emandako zerbitzuaren jardueraren inguruko hainbat ebaluazio-irizpideri buruzko azterketa erantsi dugu:

↪ Profesionalen profila:

- Emakumeen aurkako tratu txarren arazoari buruzko balorazioa
- Prestakuntza espezializatua

↪ Laguntzeko programak:

- Terapia-prozesua
- Profesionalen parte-hartzea etengabeko hobekuntzan
- Zerbitzuaren norainokoa

LAGUNTZA PSIKOLOGIKOKO PROGRAMETAKO PROFESIONALEN GALDETEGIEN EMAITZAK

IV.1. LAGUNTZA PSIKOLOGIKOKO PROFESIONALEN PROFILA

IV.2. LAGUNTZA PSIKOLOGIKOKO PROGRAMAK

LAGUNTZA PSIKOLOGIKOKO PROGRAMETAKO PROFESIONALEN GALDETEGIEN EMAITZAK

Atal hau bi kapituluk osatzen dute, eta horietan laguntza psikologikorako instituzioek ezarritako programetako profesionalek erantzundako galdeetegi buruzko azterketaren emaitzak adierazi ditugu, laguntza psikologikoko jardueri eta zerbitzuei buruz duten iritzia zein den jakiteko.

Lehenik eta behin, parte hartu duten pertsonen profilar buruzko galdeetegiaren emaitzak bildu ditugu, eta horiek ezaugarri soziodemografikoei eta prestakuntzako eta lanbideko ezaugarri buruzkoak dira, eta, halaber, emakumeen aurkako etxeko tratu txarri buruz duten balorazioa ere bildu dugu.

Bigarren atalean, bestalde, etxeko tratu txarren biktima diren emakumeentzako Laguntza Psikologikoko Programetan parte hartzen duten profesionalek programa horiei buruz duten iritzia bildu dugu. Bereziki honako hauek hartzen dira kontuan: esku-hartze prozesuetan hobetzeko dauden arloak, programetan parte hartzen dutenek horien antolaketan duten parte-hartzea, lagundutako emakumeei eman zaien informazioa, eta, azkenik, zerbitzuaren norainokoa, baliabide profesionalei zein materialei dagokienez.

Foru-aldundiek EAEn abian jarritako Laguntza Psikologikoko Programen barruan etxeko tratu txarren biktima diren emakumeei laguntza ematen aritu diren profesionalen laurden batek erantzun du galdeetgia. Emaitzak ez badira ere behar bezain adierazgarriak biztanleria osora estrapolatzeko, laginaren errorea +/-%16 ingurukoa da %95eko konfiantza-mailarako, lagungarriak dira programa horietan lan egiten duten terapeutek hautemandako errealitatearen deskripzioa ezagutzeko. Terapeutek lan egiten duten lurralde historikoaren arabera ponderatuta daude emaitzak, inkestatutako lagina eta aztertzen ari garen biztanle-taldea ahalik eta gehien egokitzeko.

IV.1- PROGRAMETAKO PROFESIONALEN PROFILA

IV.1.1- EZAUGARRI SOZIODEMOGRAFIKOAK



IV.1.2- LAN-ESPERIENTZIA

IV.1.3- PRESTAKUNTZA-IBILBIDEA

IV.1.4- ARAZOARI BURUZKO BALORAZIOA

IV.1.1- EZAUGARRI DEMOGRAFIKOAK

Laguntza psikologikoa ematen duten profesionalen ezaugarri soziodemografikoei dagokienez, sexua eta haiek beren terapia-lanak betetzen dituzten lurralde historikoa hartu ditugu kontuan.




Laguntza Psikologikoko Programetan parte hartu duten terapeuten kolektiboan, ia denak emakumeak dira, eta kopuru hori bat dator galdetegiaren bidez azterlanean parte hartzen duten pertsonen profilarekin: horien %83 emakumeak dira.

Laguntza ematen aritzen diren lurralde historikoari dagokionez, %85 Gipuzkoan aritu dira, %10 Bizkaian eta %5 Araban. Beraz, EAEko hiru lurralde historikoen ehunekoen artean alde handia dago, eta, hori hala da, estrategia desberdinak erabiltzen dituztelako programak antolatzeko eta horiek abian jarri eta garatzeko: Araban eta Bizkaian, foru-aldundiek lehiaketa publiko bidez erabaki dute psikologia-kabinete berak ematea zerbitzua. Gipuzkoan, berriz, Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Psikologoen Elkarte Ofizialaren artean sinatutako hitzarmen baten bidez antolatu dute nork eman zerbitzua, eta, laguntza psikologikoa emateko modua deszentralizatu da, eta, horretarako, profesionalen homologazioa egin dute Gipuzkoako hainbat lekutan programan sartzeko.


IV.1.2- LAN-ESPERIENTZIA

Lan-esperientzia deskribatzeko ezaugarri hauek hartu ditugu kontuan: psikologiako lizentziatura eskuratu denetik igarotako urte-kopurua, etxeko tratu txarren biktima diren emakumeei laguntza psikologikoa ematen aritutako urte-kopurua eta zenbat hizkuntza dakizkien komunikatzeko eta psikoterapia egiteko. Azken alderdi horri dagokionez, galdetu diegu zenbateko garrantzia ematen dioten laguntza psikologikoa gaixoaren ama-hizkuntzan emateari.


Urte-kopurua psikologian lizentziatu zirenetik



Tratu txarrak nozitutako emakumeen arretan emandako urteak



Oro har, profesionalak esperientzia handia dute psikologia-lanetan. Horien %55 duela 16 eta 25 urte bitarteko epean lizentziatu ziren, eta %50 inguruk badu lan-esperientzia, tratu txarren biktima diren emakumeekin psikoterapia egiten 10 urte baino gehiago aritu baitira, eta horietako batzuk 20 urtez ere bai.




Galdetegia erantzun duten pertsonen %50ek baino gehiagok adierazi du EAEko bi hizkuntza ofizialetan komunikatzeko gai dela, eta %30 gai da terapia-lanak bi hizkuntzetan egiteko. Profesionalek adierazitako beste hizkuntza batzuen artean, frantsesa eta ingelesa dira nabarmentzeko modukoak; izan ere, inkesta beste duten terapeuten %3k eta %7k, hurrenez hurren, adierazi dute gai direla terapia-saioak bi hizkuntza horietan egiteko.

Laguntza ematen zaion emakumearen ama-hizkuntza erabiltzea psikoterapia egitean garrantzitsua dela soilik inkesta bete duten pertsonen %7k adierazi dute. Galdera horren inguruan hainbat zehaztasun egin dituzte psikoterapia emakumearen ama-hizkuntzan egiteari garrantzia ematen ez diotenenk, adierazi baitute emakumearen ama-hizkuntzan egitea egokia dela baldin eta terapeuta hizkuntza horretan komunikatzeko gai bada. Dena dela, laguntza eman ahal izateko ezinbestekoa bada terapia-saioan hirugarren pertsona bat egotea interpretazio-lanak egiteko, adierazi dute esku-hartzeari ondorio negatibo gehiago eragingo lizkiokeela positiboak baino.

IV.1.3- PRESTAKUNTZA-IBILBIDEA

Psikologoaren prestakuntza-ibilbidea zehazteko honako hauekin zerikusia duen prestakuntza hartu da kontuan: batetik, psikologia klinikoari buruzko espezializazioa eta horrekin lotutako prestakuntza-maila, eta, bestetik, genero-ikuspegiari zein emakumeen aurkako indarkeriari buruzko prestakuntza-maila. Azken horri dagokionez, eskatu diegu prestakuntzan beharrezkotzat jotzen dituzten aldaketak proposatzeko, guk gehiago jakin dezagun horri buruz eta Laguntza Psikologikoko Programetan eraginkortasun handiagoz aritu ahal izateko.


Psikologia klinikoko espezialistaren titulua



■ Bai ■ Ez


Prestakuntza- edo curriculum-ibilbidea zehazteko erreferentziatzat hartu dira Gipuzkoako Foru Aldundiak homologazio profesionala eskuratzeko egindako baldintza teknikoen agirian jasotako eskakizunak. Agiri horretan berariaz adierazten da Psikologia Klinikoko espezialistaren titulua izan behar dela, edo hori eduki ezean, egiaztatu egin behar dela Psikologia Lizentziaturako ikasketak egin direla (Nortasuna, Balioespena eta Psikologia Tratamenduak irakaskuntza-arloarekin edo Psikologia klinikoa edo Osasun-psikologiarekin lotutako curriculum-ibilbide kualifikatuari jarraiki), edo arlo horietako graduondoko prestakuntza osagarria. Alderdi horiek ezkerretako grafikoan eta hurrengo orrialdeko bi grafikoetan adierazita daude.

Grafikoak erakusten duenez, inkesta bete duten pertsonen %52k du Psikologia klinikoko espezialistaren titulua.



Psikologia Klinikoko espezialistaren titulua duten pertsonen graduondoko prestakuntzari buruzko galderak egin dizkiegu: %67k Psikologia kliniko eta Osasun-psikologiarekin lotutako prestakuntza dute, %54k Psikologia-tratamenduekin lotutakoa, %23k Balioespenarekin lotutakoa, eta %5ek Nortasunarekin lotutakoa.


Psikologia klinikoko titulurik ez duten pertsonen egindako curriculum-ibilbide kualifikatuari dagokionez, titulua duten profesionalen egindako ibilbidearen oso antzekoa da: %89 Psikologia klinikoan eta osasun-psikologian espezializatuta daude, %71 Psikologia-tratamenduetan, Balioespena arloan espezialitatea %59k dute eta Nortasunaren arloko espezialistek dagokionez, %30 dira.



Halaber, berdintasunaren eta genero-ikuspegiaren arloan zein emakumeen aurkako etxeko tratu txarren arazo espezifikoaren arloan terapeutek prestakuntza jaso duten aztertu dugu. Emakumeen aurkako etxeko indarkeriarekin lotutako prestakuntza-jardueraren bat egin duten pertsonen honako hauei buruzko galderak egin zaizkie: eskuratutako prestakuntza-maila eta prestakuntza-jarduerei buruzko balorazioa, eta, bestalde, aukera eman diegu arlo horretako prestakuntza-jarduerak hobetzeko beharrezkotzat jotzen dituzten aldaketak adierazteko, kopuru eta/edo edukiari buruzkoak.


Agerian geratu da terapeuta guztien erdiak baino gehiagok prestakuntza jaso dutela berdintasunaren eta genero-ikuspegiaren arloan. Emakumeen aurkako tratu txarren arloan berriazko prestakuntza jaso duten pertsonen ehuneko nabarmen handiagoa da, %84. Azken horri dagokionez, ezinbestez argitu behar dugu zerbitzua Gipuzkoan ematen dutenek adierazi dutela berriazko prestakuntza ez dutela jaso. Izan ere, Araban eta Bizkaian kabinete esleipendunak barne-prestakuntzarako prozesua du ezarria, arloari buruzko prestakuntza bermatzeko.

Genero-ikuspegiaren arloko eta/edo emakumeen aurkako etxeko tratu txarren arloko prestakuntza edukitzea ez da foru-aldundiek laguntza psikologikoko programetan parte hartzeko ezarritako ezinbesteko eskakizuna. Dena dela, Bizkaian eta Araban balioetsi egin da kabinete esleipendunak mota horretako prestakuntza bermatzea. Gipuzkoan, berriz, homologazioa eskuratzeko eskakizunetako bat da hau da: "profesionalek Gipuzkoako Foru Aldundiak gizarte-zerbitzuen arloan antolatutako ikastaroetara eta mintegietara joan behar dute". Hala ere, Profesionalen homologaziorako baldintza teknikoaren agiria 2007an argitaratu zuenetik, Gipuzkoako Aldundiak ez du inolako ikastaro edo mintegirik antolatu zerbitzua ematen duten profesionalentzat.



Egindako prestakuntzari buruzko balorazioak eman ditzaten eskatu aurretik, esan zitzaizkien tratu txarren biktima diren emakumeei laguntza psikologikoa emateko programan hasi zirenean zuten lanbide-prestakuntza baloratzeko. Horrela, ikusi ahal izan dugu esku-hartzeko gaitasunari buruzko balorazioa hobea dela esperientzia eskuratu ahala, esperientzia praktikoari eta etengabeko prestakuntzari esker. Inkesta bete dutenen %19k esan du programan hasi zirenean zeukaten prestakuntza ez zela egokia etxeko tratu txarren biktima diren emakumeei laguntza ematen aritzeko. Hala ere, iritzia bestelakoa da uneko prestakuntzaren egokitasun-mailari buruzko balorazioa eman dutenean. Gogoratu besterik ez dago, profesionalen %50 inguruk 10 urte baino gehiagoko esperientzia dutela delitu-mota horren biktima diren emakumeei laguntza ematen.


Egindako prestakuntza-jardueraren mailari dagokionez, nabarmentzeko modukoa da "Indarkeria" arloan prestakuntza jaso dutenen %23k master- edo graduondo-mailako prestakuntza jaso dutela. Inkesta bete duten profesional ia guztiek parte hartu dute jardunaldi edo kongresuren batean, berdintasunari buruzkoetan (%100) zein emakumeen aurkako indarkeriari buruzkoetan (%96).



Goiko grafikoetan prestakuntza-jardueretan parte hartu dutenek prestakuntza-kantitateari buruz duten iritzia adierazten da: hau da, jasotako prestakuntza-kopuruarekin eta -motarekin zerikusia duen alderdiren bat aldatuko luketen.

Ezkerraldeko grafikoan, egindako prestakuntza-motaren arabera bereizita, iraupenarekin lotutako aldaketaren bat beharrezkotzat jotzen duten edo ez ikus daiteke. Horrenbestez, jardunaldietan edo kongresuetan parte hartuta prestakuntza jaso dutenen %53k uste du prestakuntza-kantitatearekin lotutako aldaketaren bat egitea beharrezkoa dela: sakontzearen alde daude %75, prestakuntza-kantitatea handituta (eskuinaldeko grafikoa) eta %25ek uste du prestakuntza praktikoa gehiago eskuratzea beharrezkoa dela.

Masterretan edo graduondoetan eta ikastaroetan parte hartu dutenen artean, askoz ere gutxiagok uste du prestakuntza gehiago behar duela: %7k eta %6k, hurrenez hurren. Aldaketa-motari dagokionez, maila goreneko prestakuntza egin dutenek ez dute beharrezkotzat hartzen prestakuntza-ordu gehiago egitea, baina praktikarekin osatuko lukete prestakuntza, %13k hain zuzen. Eta bukatzeko, emakumeen aurkako indarkeriarekin lotutako ikastaroren bat egin duten pertsonen artean, %11k adierazi du prestakuntza-ordu gehiago egingo lituzkeela, eta pertsona-kopuru horren bikoitzak uste du beharrezkoa dela prestakuntza praktikoa gehiago edukitzea.



Prestakuntzaren edukiari buruz proposatutako aldaketei erreparatuz gero, jasotako prestakuntza-motaren arabera bereizita taldeak, ohartu gara prestakuntza-kantitateari buruz proposatutako aldaketen oso antzekoa dela joera. Kasu honetan ere jardunaldien eta kongresuen bidez jaso dutenek prestakuntza dira gehienbat (%69) edukian aldaketak egitea beharrezkotzat jo dutenak, eta gai hauekin lotura dutenak nabarmendu dituzte: biktimen portaerak eta jarrerak ulertzea, biktimei laguntzeko trebetasun pertsonalak eskuratzea eta beste arazo batzuk ere dituzten emakumeei laguntzea. Jardunaldien eta kongresuen bidez prestakuntza jaso dutenen %44k adierazi dute aldaketa horiek guztiak beharrezkoak direla.

Unibertsitatearen esparruko masterrak eta graduondoak eginez jaso dutenek prestakuntza adierazi dute beharrezkoa dela arazo bereziak dituztenei laguntzeko eta haien beharretara egokitzeko trebetasun pertsonalekin lotura duten alderdietan sakontzea (%11, hurrenez hurren).

IV.1.4-. ARAZOARI BURUZKO BALORAZIOA

Atal labor honetan, emakumeen aurkako etxeko indarkeriaren arazoa aztertuko dugu eta inkesta bete dutenek arazoari buruz duten balorazioa zein den jakingo dugu. Horretarako, zenbait esaldi jarri ditugu eta horiekin zenbateraino dauden ados edo aurka adierazi dute.

Arazoari buruzko balorazioak (%)

	Erabat ados	Ados	Ez oso ados	Aurka
Edozein emakume izan daiteke indarkeriaren biktima	61	39	0	0
Emakumeen aurkako indarkeria desagertuko da gizonen eta emakumeen artean berdintasuna lortzen denean	12	67	17	4
Salaketa jartzen dutenean, biktimek bikotekidea aldatzea nahi dute	12	60	28	0
Berdintasunean oinarritutako hezkuntzak eragingo du benetako aldaketa soziala	55	45	0	0
Laguntza eman zaien emakumeak ez dira gai beren egoerari buruzko erabakiak hartzeko	0	40	32	28

Inkesta bete duten terapeuta guztiek adierazi dute edozein emakume izan daitekeela etxeko tratu txarren biktima, eta benetako aldaketa soziala lor dadin ezinbestekoa dela berdintasunean oinarritutako hezkuntza lantzea. Dena dela, emakumeen aurkako indarkeria gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna eta berdintasun eraginkorra lortzen denean desagertuko dela dioen esaldiari dagokionez, %21ek adierazi du ez dagoela oso ados edo aurka dagoela.

Biktima diren emakumeen gaitasun eta jarrerari dagokionez, adostasun-maila txikiagoa izan da; izan ere, %40k uste du laguntza eman zaien emakumeak ez direla gai beren egoerari buruzko erabakiak hartzeko eta %60 ez dago horrekin ados. Eta %72k uste du emakume batek tratu txarrak salatzen dituen bikotekidea aldatzea nahi duela eta %28 ez dago horrekin ados.

IV.2- LAGUNTZA PSIKOLOGIKOKO PROGRAMA

IV.2.1- ESKU-HARTZEAREN PROZESUA

IV.2.2- EMAKUMEEN AURKAKO ETXEKO TRATU TXARREI BURUZKO INFORMAZIOA BIKTIMEI


IV.2.3- PROFESIONALEN PARTE-HARTZEA PROGRAMAN

IV.2.4- ZERBITZUAREN NORAINOKOA


IV.2.1- ESKU-HARTZEAREN PROZESUA

Atal honetan azalduko dugu terapeutek oztoporen bat hauteman duten emakumeen aurkako etxeko tratu txarren biktima direnei laguntza psikologikoa ematean, eta, horrezaz gain, galdetu diegu emakumeek arazorik izan dezaketen tratamendu terapeutikoa egiten jarraitzeko.

Zailtasunak esku-hartzeko prozesuan (%)



Tratamendua jarraitzeko zailtasunak




Hautemandako arazoei dagokienez, esku-hartze terapeutikoaren prozesuak iraun bitarteko aldi hauetan oztoporik izan duten erantzuteko eskatu diegu: kasuaren azterketa eta hari buruzko balorazioa egitean, esku-hartze handiagoa edo hura luzatzea beharrezkoa den erabakitzeko balorazioa egitean, eta, azkenik, segimendua egitean, egiten den kasuetan. Arazoak soilik hauteman dituzte terapiaren iraupena baloratzean eta eskaera egitean (%27).

Hala ere, gaixoak tratamendua egiten jarraitzeko izan ditzakeen arazoei dagokienez, inkesta bete duten pertsonen %51k hauteman dituzte arazoak saioetara bertaratzeko. Zenbait pertsonak adierazi dute biktimaren eta erasotzailearen arteko bizikidetzaren oztopo izan daitekeela saioetara bertaratzeko, erasotzaileak biktimaren gaineko kontrola izaten jarraitzen badu.


IV.2.2- EMAKUMEEN AURKAKO ETXEKO TRATU TXARREI BURUZKO INFORMAZIOA BIKTIMEI

Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeei laguntzeko dauden zerbitzu guztietan garrantzitsua da emakumeak aurretiaz jakitea bertan zer baliabide dituen eskura, bai eta esku-hartzearen prozesuari buruz jakitea ere. Atal honetan alderdi horiek aztertu ditugu, eta, horretarako, honako hauek hartu ditugu kontuan: Laguntza Psikologikoko Programari eta informazio-material osagarriari buruz emakumeek aurretiaz duten informazioaren gainean terapeutek duten balorazioa eta beste baliabide batzuei buruz informatzea egokia den uste duten.

Programari buruzko aurretiko informazioa




Informaziorako material osagarria



Inkesta bete duten profesionalen %69k uste du Laguntza Psikologikoko Programak eskaintzen duen zerbitzu-motari buruz emakumeek aurretiaz duten informazioa egokia dela; hala ere, informazio hori egokia ez dela uste dutenen kopurua oso handia da.

%52k uste du esku-hartzerakoan material osagarriaren bat edukitzea beharrezkoa dela; esate baterako, informazio guztia jasotzen duten liburuxkak, gaixoak informazioa idatziz edukitzeko.




Laginaren profesional guztiek egokitzat hartu dute beste baliabide batzuei buruz informatzea, etxeko tratu txarren biktima diren emakumeei laguntzeko dauden zerbitzuen arloari buruz. Baliabide-motak bereiziz gero, terapeuta guztiek adierazi dute egokia dela eskura dagoen laguntza sozialari buruz informatzea, eta %83k uste du garrantzitsua dela laguntza judizialei eta/edo juridikoei buruz informatzea.

Halaber, beharrezkotzat jo dute lan ordainduarekin lotutako laguntzei buruz informatzea (%75), eta, ondoren, osasun arloko eta poliziaren arloko laguntzei buruz informatzea (565 eta %63, hurrenez hurren). Laguntza ekonomikoak eskuratzeko informazioari eman diote garrantzi gutxien (%56).

IV.2.3- PROFESIONALEN PARTE-HARTZEA PROGRAMAN


Atal honetan, Laguntza Psikologikoko Programetan terapeuta-lanak egin dituzten pertsonen parte-hartzea adieraziko dugu.

Parte-hartzea programaren hobekuntzan




■ Bai ■ Ez

Parte-hartzearen beharra



■ Bai ■ Ez

Programarekin gustura izateari buruzko iritzia



■ Bai ■ Ez


%40k esan du noizbait eskatu zaiola parte hartzen duen programaren funtzionamendua hobetze aldera parte hartzeko eta %60k, ordea, adierazi du ez duela inoiz parte hartu. Hobetzeko proposamenak eginez diseinuan eta funtzionamenduan parte hartzea beharrezkoa dela adierazi dute inkesta bete duten pertsonen %89k.

Parte hartzeko beste modu bat da programetan parte hartzen dutenei galdetzea ea gustura dauden programarekin; kasu guztien %19tan egin da.


IV.2.4- ZERBITZUAREN NORAINOKOA

Laguntza Psikologikoko Programan parte hartzen duten profesionalak horien funtzionamenduari eta antolaketari buruz egin duten balorazioa adierazten duen kapituluaren amaieran, zerbitzuaren norainokoa aztertu dugu, eta, horretarako, baliabide pertsonalak zein bitarteko bereziak hartu ditugu kontuan, beste arazo batzuk ere dituzten pertsonak programetan parte hartzeko aukera izan dezaten bermatzeko.


Profesionalen kopurua



Nahikoa baliabide



Beharrezko baliabideak



Inkesta bete duten ia guztiek, %93k, uste du Laguntza Psikologikoko Programetan dagoen profesional-kopurua nahikoa dela izaten dituzten kasuei behar bezalako laguntza emateko. Hala ere, erabat bestelako balorazioa eman dute arazo bereziak dituzten emakumeei laguntzeko dauden bitarteko bereziei buruz. Emakume horiek dira, besteak beste: atzerriko emakumeak, ijitoak, dibertsitate funtzionala dituztenak, buruko gaixotasunen bat dutenak edo droga-mendetasunak dituztenak.

Aipatutako arazo-mota horietakoren bat ere baduten emakumeek programa eskuratu ahal izango dutela bermatzeko bitartekoen artean, %52k adierazi du beharrezkoa dela atzerriko hizkuntzetarako interpretea edukitzea eta %48k zeinu-mintzairaren interpretea edukitzea.

V. KAPITULUA- BALIABIDE PSIKOLOGIKOEN EGOKITASUNARI BURUZKO AZTERKETA

V.1- SARRERA

Baliabideak egokiak diren jakiteko, ezinbestekoa da instituzioek beren eginkizunei aurre egiteko duten gaitasuna aztertzea, bai kantitatearen aldetik bai kalitatearen aldetik. Baliabideak, halaber, mota askotakoak izan daitezke; esate baterako, giza baliabideak edo materialak, eta, azken horien artean, azpiegiturak, ekipamendua, tresnak eta halakoak izateaz gain, finantza-baliabideak ere badira, erakundeari ez dagozkion zerbitzuak kontratatu eta eginkizun jakinak bete ditzaten.

Esku artean duzun txostenean, instituzio bakoitzeko langileak aztertu ditugu, eta ohartu gara oso zaila dela erabakitzea horiek, kopuruari dagokionez, nahikoak diren. Izan ere, horietako gehienek ez dute dedikazio eskusiboa etxeko tratu txarren inguruko egoeretan laguntzen aritzeko. Hautatutako adierazleek, ahal izan den guztietan, aldi bateko bilakaera eta zain egondako denboraren balorazioa dute oinarri.

Bestalde, etxeko indarkeriaren eta genero-indarkeriaren arloko espezializazioa eta berriazko prestakuntza hautatu dira giza baliabideen kualifikazioaren balorazio-adierazletzat. Instalazioen eta baliabide materialen kasuan, alderdi hauek hartu dira garrantzitsutzat: lurraldekako banaketa, horietara joan ahal izatea bermatuta egotea, itzulpen-zerbitzuak eta kultura arteko bitartekotza zerbitzuak izatea, komunikazioen pribatutasuna eta adingabeentzat egokitutako itxarongelak izatea. Azkenik, horiei dagozkien aurrekontuak baloratu ditugu.

Adierazle horiek honako bi lege hauek ezarritako irizpideen arabera antolatu dira: **abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, Genero Indarkeriaren aurka Osoko Babesa emateko Neurriei buruzkoa** eta Eusko Legebiltzarraren Berdintasunerako Legea, **otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa (EGBL)**. Lehendabizikoak ezarritakoaren arabera, laguntza psikologikoa gizarte-laguntza osoak bere baitan hartzen duen betebeharrerako bat da, eta genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeek dute horretarako eskubidea. Honela definitzen du laguntza hori: **espezializatua, eskuragarria, deszentralizatua, doakoa, urgentea, adingabeei laguntzekoa eta beste baliabide batzuekin koordinatua. Eusko Legebiltzarraren**

Berdintasunerako Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak (EGBL), emakumeen aurkako indarkeria arautzen du haren VII. kapituluan, eta ebaluazio honetan aztertzen ari garen gaiei dagokienez, herri-administrazio eskudunei agintzen die **laguntza psikologiko urgentea, doakoa, espezializatua, deszentralizatua eta eskuragarria** izateko eskubidea bermatu behar diela biktimei.

V.2- BALIABIDE PSIKOLOGIKOEN ANALISIA

- a) Espezializazioa
- b) Eskuragarritasuna
- c) Deszentralizazioa
- d) Doakotasuna
- e) Urgentea
- f) Adingabeentzako laguntza
- g) Beste baliabide batzuekin koordinazioa

A- ESPEZIALIZAZIOA

11. taula. TERAPEUTAK		
LHak	Profesionalak	Emakumeak (%)
Araba	5	%100
Bizkaia	12	%92
Gipuzkoa	86	%60
GUZTIRA	103	%67

12. Taula – ESPEZIALIZAZIO-IRIZPIDEAK					
LHak	Eskatutako lan-esperientzia			Etengabeko prestakuntza	
	BPE/ curriculum-ibilbidea	Aurretiazko esperientzia (urteak)	Betetze-mailaren kontrola	Indarkeria	Berdintasuna
Araba	✓	✓ (2)	✓	✓	✓
Bizkaia	✓	✓ (3)	✓	✓	✓
Gipuzkoa	✓	✓ (4)	✓	x	x

13. taula. AURREKONTUA		
LHak	Kostua	Batez besteko gehikuntza (2005-07)
Araba	345.551	%30
Bizkaia	426.936	%3
Gipuzkoa	450.000	%21

14. taula. JARDUERA 2007				
LHak	Guztira Programa	Bikotekideak eragindako emakume biktimak	Espezializatu % (bikotekideak eragindako emakume biktimak)	Batez besteko gehikuntza (2005-07)
Araba	226	217	%96	%15
Bizkaia	449	296	%66	%3
Gipuzkoa	376	236	%73	%5

- Laguntza Psikologikoko Programak EAEn ez dira soilik bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako tratu txarren biktima diren emakumeei laguntzeko, eta, beraz, 11., 12. eta 13. tauletan adierazitako datuak programa guztiei buruzkoak dira.
- Emakumezko terapeuta batek terapian esku-hartzeari dagokionez, bermatuta dago hiru LHetan.
- Espezializazio-irizpidetzat aurretiaz lan-esperientzia edukitzea ezarri da, eta foru-aldundiek kontrolatzen dute hori beteko dela. Bizkaia eta Arabaren kasuan, barne-prestakuntzarako ibilbidea antolatzen dute, zerbitzuaren esleipendun Psikologia-kabineteak diseinatuta, eta, hala, genero-indarkeriaren zein berdintasunaren alorrean prestatuta egongo direla bermatzen dute. Gipuzkoan prestakuntza-mota hori ez dago behar bezain beste bermatuta, ez baitago prestakuntza-ibilbide zehatzik eta horretarako propio diseinatutakorik.
- 14. taulan adierazitakoaren arabera, argi eta garbi dago Laguntza Psikologikoko Programen jarduera ia gehienak emakumeen aurkako etxeko tratu txarren biktima diren emakumeei emandako laguntzarekin dutela zerikusia.
- Etxeko tratu txarren eta genero-indarkeriaren alorreko jarduera-bolumenak gora egiten jarraitzen du denboraren joanean. %15 hazi da urtean batez beste Araban, %3 Bizkaian eta %5 Gipuzkoan. Aurrekontuak laguntza ematen zaien arazo guztiei dagozkie eta ez soilik bikotekideak edo bikotekide ohiak emakumeen aurka eragindako indarkeria-kasuei; hala ere, agerian dago aurrekontuaren urteko batez besteko igoera eta kasuen bolumen-igoera bat datozela.

B- ESKURAGARRITASUNA

15. taula- INSTITUZIOEN BALDINTZAK, PROGRAMETAN PARTE HARTZEKO

LHak	Salaketa	Babesteko agindua	Arazko egoera	Erroldatzea	Bertan bititza
Araba	Ez	Ez	Ez	Ez	Bai
Bizkaia	Ez	Ez	Ez	Ez	Bai
Gipuzkoa	Ez	Ez	Ez	Ez	Bai

16. taula- OZTOPO FISIKO/ESPAZIALA

LHak	Oztoporik ez	Adingabe laguntzaileentzako espazioa
Araba	✓	x
Bizkaia	✓	✓
Gipuzkoa	✓	x

17. taula- OZTOPO SOZIALAK

LHak	Sexua	Aniztasuna	Atzerritarra			
	Emakumezko terapeutak	Zeinu-mintzaira	Ingelesa	Frantsesa	Beste hizkuntza batzuk	Kultura arteko bitartekotza
Araba	✓	x	✓	✓	x	x
Bizkaia	✓	x	✓	✓	x	x

- Programetan parte hartzeko baldintza bakarra eskaera egiten den lurralde historikoan bititza da.
- Zerbitzu horiek ematen dituzten instalazioetara sartzeko ez dute arazorik dibertsitate funtzionala duten pertsonen; Gipuzkoan laguntza emateko gune asko daudenez, horietan guztietan ez dago bermatuta oztopo arkitektonikorik ez dagoela. Dena dela, emakumeak arazoren bat badu, sartzeko oztoporik ez dauden guneetako profesioaletara bideratzen da emakumea edo udalaren aretoetan egiten du terapia.
- Araban eta Gipuzkoan, adingabe laguntzaileentzako espazio egokiturik ez dago.
- Erabiltzailearen eta zerbitzuaren artean dagoen tartea, haien ezaugarriei dagokienez, da **oztopo soziala**. Erabiltzailearen ezaugarri hauek hartu dira kontuan: komunikatzeko hizkuntza, laguntza ematen duen pertsonaren sexua eta erabiltzaileen kultura-balioak.
- Terapiak egiteko erabiltzen den hizkuntzari dagokionez, laguntza psikologikoa ahula da, terapia gaztelania eta euskara ez diren beste hizkuntzaren batean egiteko aukera gutxi baitago. Badira tratamendua ingelesez edo frantsesez egiteko prestakuntza-maila duten zenbait profesional.
- Ez dago zeinu-mintzairan komunikatzeko gaitasuna duen terapeutarik.
- Ez dago kultura arteko bitartekotzarako baliabiderik beste kultura-ingurune batzuetako pertsonentzat; beraz, badago aukera soilik elebidun izango ez diren kultura arteko espazioak sortzeko.

C- DESZENTRALIZAZIOA				D- DOAKOTASUNA		
18. taula. LAGUNTZA-ZENTROAK				19. Taula- DOAKOTASUNA		
LHak	Lurraldeko banaketa	Tratamenduaren homogeneotasuna	Taldeko saioak	LHak	Terapia	Desplazamenduak
Araba	x	✓	✓	Araba	✓	✓
Bizkaia	x	✓	✓	Bizkaia	✓	x
Gipuzkoa	✓	x	x	Gipuzkoa	✓	x
<ul style="list-style-type: none"> - Zerbitzuen banaketa irregularra da, gehienak LHetako hiriburuetan baitaude. - Gipuzkoari dagokionez, laguntza deszentralizatuta dago eta hainbat kabinetek eta/edo profesionalek ematen dute; aplikatzen dituzten terapiak ez dira homogeneoak. - Araban eta Bizkaian, berriz, programa psikologia-kabinete bakar batek garatzen duenez, aplikatzen diren tratamenduak homogeneoak dira, bi LHetan dira homogeneoak. - Deszentralizazioari dagokionez, egoera gero eta hobea da; hala ere, Araban esaterako, Gasteizen eta Laudion ematen da zerbitzua. - Bizkaian, Bilbon eta Markina-Xemeinen (Lea-Artibai, Munitibar eta Aulesti Mankomunitatea). 2009. urtean Zallan zerbitzua abian jartzea aurreikusita dago, Enkarterrietako eskualdekoek zerbitzua izan dezaten. - Bizkaian eta Araban tratamendua taldeko saioetan ere egiten da. 				<ul style="list-style-type: none"> - EAEko hiru LHetan terapiak doan izatea bermatuta dago, bikotekideak edo bikotekide ohiak eragindako tratu txarren biktima diren emakumeei laguntzekoa, edozein dela haien diru-sarrera. - Hala ere, nahikoa diru-sarrera ez duten emakumeen kasuan, terapia-saioetara joateko desplazamendu-gastuak Araban soilik ordaintzen ditu zuzenean programak. - Bizkaian eta Gipuzkoan, berriz, desplazamenduetarako laguntza horiek gizarte-bazterketari aurre egiteko laguntzei dagozkie (Oinarrizko Errenta, gizarte-behar larrietarako laguntza), udalen eskumenekoa. 		

E- URGENTEA			F- ADINGABEKO BIKTIMAK																																													
<table border="1"> <thead> <tr> <th colspan="3">20. taula URGENTEA</th> </tr> <tr> <th>LHak</th> <th>Denbora (orduak)</th> <th>Hautemateko adierazleak</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Araba</td> <td>24-48</td> <td>x</td> </tr> <tr> <td>Bizkaia</td> <td>24-48</td> <td>x</td> </tr> <tr> <td>Gipuzkoa</td> <td>24-48</td> <td>x</td> </tr> </tbody> </table>			20. taula URGENTEA			LHak	Denbora (orduak)	Hautemateko adierazleak	Araba	24-48	x	Bizkaia	24-48	x	Gipuzkoa	24-48	x	<table border="1"> <thead> <tr> <th colspan="3">21. taula- 1. KONTSULTA</th> </tr> <tr> <th>LHak</th> <th>Denbora (egunak)</th> <th>Itxarote-zerrenda</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Araba</td> <td>15</td> <td>Ez</td> </tr> <tr> <td>Bizkaia</td> <td>3-7</td> <td>Ez</td> </tr> <tr> <td>Gipuzkoa</td> <td>3-10</td> <td>Ez</td> </tr> </tbody> </table>			21. taula- 1. KONTSULTA			LHak	Denbora (egunak)	Itxarote-zerrenda	Araba	15	Ez	Bizkaia	3-7	Ez	Gipuzkoa	3-10	Ez	<table border="1"> <thead> <tr> <th colspan="2">22. taula- ADINGABEAK</th> </tr> <tr> <th>LHak</th> <th>Banakako terapia</th> </tr> </thead> <tbody> <tr> <td>Araba</td> <td>✓</td> </tr> <tr> <td>Bizkaia</td> <td>✓</td> </tr> <tr> <td>Gipuzkoa</td> <td>x</td> </tr> </tbody> </table>			22. taula- ADINGABEAK		LHak	Banakako terapia	Araba	✓	Bizkaia	✓	Gipuzkoa	x
20. taula URGENTEA																																																
LHak	Denbora (orduak)	Hautemateko adierazleak																																														
Araba	24-48	x																																														
Bizkaia	24-48	x																																														
Gipuzkoa	24-48	x																																														
21. taula- 1. KONTSULTA																																																
LHak	Denbora (egunak)	Itxarote-zerrenda																																														
Araba	15	Ez																																														
Bizkaia	3-7	Ez																																														
Gipuzkoa	3-10	Ez																																														
22. taula- ADINGABEAK																																																
LHak	Banakako terapia																																															
Araba	✓																																															
Bizkaia	✓																																															
Gipuzkoa	x																																															
<ul style="list-style-type: none"> - Urgentzia-kasuetan erantzuteko igarotako denborari dagokionez, ez da bi egun baino gehiago itxaron behar izaten lurralde historiko bakar batean ere. - Gipuzkoan Larrialdietako Foru Zerbitzuak bideratzen ditu urgentziak eta ez Laguntza Psikologikoko Programak. - Ez da urgentzia hautemateko adierazlerik garatu eta esperientziaren bidez eta laguntza-eskaerei erantzuten dieten profesional espezializatuek identifikatzen dituzte. - Lehen kontsultarako itxaron beharreko denborari dagokionez, 3 eta 15 lan-egun arteko epean ematen zaie laguntza emakumeei; hortaz, ez da beharrezkoa itxarote-zerrendaren bidez ematea hitz-orduak. 			<ul style="list-style-type: none"> - Gipuzkoan ez zaio programa honen esparruaren barruan psikoterapia-laguntza ematen adingabeari, eraso egin zaion emakumeak badu guraso-ahala edo haren zaintza o babespean badago. Adingabe biktimentzako programako laguntza emakumearentzako terapia-saioetan sartzen dira. Banakako saioak beharrezkotzat hartuz gero, udaletako Umeen Zerbitzura bideratzen da kasua. - Bizkaian eta Araban, premia dagoela erabaki ondoren, Laguntza Psikologikoko Programaren barruan ematen zaio banakako laguntza psikologikoa zuzeneko edo zeharkako adingabe biktimari. 																																													

G- KOORDINAZIOA LAGUNTZEKO BESTE BALIABIDE BATZUEKIN

23. taula- KOORDINAZIOA

LHak	DIPUTAZIOA	OGZ	Harrerarako programak:	BLZ	AMEE	GEZE	ELTE	Abokatu-laguntza	ERTZAINZA	OSAKIDETZA
Araba	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Bizkaia	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓
Gipuzkoa	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓	✓

- Esku-hartzen denean, behar beste koordinazio-lan egiten dira beste baliabide batzuekin, batez ere foru-aldundi kontratatzaileekin eta Gizarte Zerbitzuekin. Arlo juridiko edo judizialarekin eta polizia- eta/edo osasun-arloekin zerikusia duten beste baliabide batzuekiko koordinazio-lana soilik beharrezkoa eta positibotzat jotzen denean egiten da.

V.3- AMAIERAKO BALORAZIOAK		
IRIZPIDEAK	ALDERDI POSITIBOAK	HOBETZEKO DAUDEN ARLOAK
A- ESPEZIALIZAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> • Langileak espezializatuta eta prestatuta. • Barne-prestakuntzarako programak. • Aurrekontua une oro egokitu programaren beharretara. • Profesionalek programetan parte hartzeko bete beharreko eskakizunak betetzen dituzten kontrolatu. • Programaren barne-ebaluazioa (Bizkaia, Araba) 	<ul style="list-style-type: none"> • Lurralde-homogeneotasuna. • Espezializazio handiagoa atzerriko emakumeei laguntzeko. • Gipuzkoa: etengabeko prestakuntza-ibilbideak diseinatu, emakumeen aurkako indarkeriaren eta genero-ikuspegiaren arloetan. • Gipuzkoa: programaren barne-ebaluazioak egin.
B- ESKURAGARRITSUNA	<ul style="list-style-type: none"> • Instituzioen baldintzak: <ul style="list-style-type: none"> ◦ Laguntza eman, edozein dela administrazio-egoera eta/edo prozesu judiziala. ◦ Baldintza bakarra bertan bizitzea. • Oztopo fisikoak: <ul style="list-style-type: none"> ◦ Espazioak egokituta. • Oztopo sozialak: <ul style="list-style-type: none"> ◦ Bermatu emakumezko terapeutak esku hartuko duela terapian. 	<ul style="list-style-type: none"> • Gipuzkoa: programan parte hartzeko bide bakarra OGZ da, eta, hortaz, OGZra joateko oztopo sozial edo psikologikoren bat duten emakumeak laguntza psikologikoko programatik kanpo geratzen dira. • Kultura arteko bitartekotza. • Adingabeentzako espazioak/ amak kontsulta jaso bitarteko zaintza-zerbitzua edo haurtzaindegia. • Lan-orduz kanpoko zerbitzu-ordutegia. • Terapia atzerriko hizkuntzetan. • Zeinu-mintzairan prestakuntza. • Eskaintzen den zerbitzua ezagutarazi herritar guztiei.
C- DESZENTRALIZAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> • Eskuragarritasuna. • Deszentralizazioa lortzeko ekintzak. 	<ul style="list-style-type: none"> • Lurralde-homogeneotasuna, hiriburuetatik kanpo, urruti dauden zonaldeetan edo garraio publiko gutxi duten zonaldeetan zerbitzua emateari dagokionez.
D- DOAKOTASUNA	<ul style="list-style-type: none"> • Doako terapia-saioak. • Baliabiderik gabeko emakumeei desplazamendu-gastuak ordaindu (Araba). 	<ul style="list-style-type: none"> • Lurralde-homogeneotasuna, desplazamendu-gastuak ordaintzeari dagokionez (Bizkaia eta Gipuzkoa).
E- URGENTEA	<ul style="list-style-type: none"> • Urgentzia hauteman. • Lehen hitz-ordua 15 lan-egun baino lehen (apirilaren 6ko 64/2004 Dekretua, gizarte-zerbitzuen erabiltzaile eta profesionalen eskubide eta betebeharren Gutuna). • Laguntza urgentea 48 ordu baino lehen. • Itxarote-zerrendarik gabe laguntzeko gune guztietan. 	<ul style="list-style-type: none"> • Lehen hitz-ordurako zain egon beharreko denbora Gipuzkoan: OGZ denez parte hartzeko bidea, OGZan laguntza atzeratzeko arriskua dago. • Ez dago urgentzia hautemateko lanabes sistematizaturik.

F. ADINGABEENTZAKO LAGUNTZA	<ul style="list-style-type: none">• Langileak espezializatuta eta prestatuta (Bizkaia eta Araba).• Laguntza Psikologikoko Programaren barruko laguntza.	<ul style="list-style-type: none">• Lurralde-homogeneotasuna, zerbitzua emateari dagokionez (Gipuzkoan ez zaie zeharkako adingabeko biktimei banakako laguntza ematen).• Ibilbide motzeko zerbitzua.
G- KOORDINAZIOA	<ul style="list-style-type: none">• Une oro koordinazioa foru-aldundiekin.• Koordinazio handia beste baliabide batzuekin• Diziplina anitzen arteko koordinazioa.	<ul style="list-style-type: none">• Koordinazioa lan-arloko bitartekotzarako zerbitzuekin, laguntza psikologiko espezializatua sustatzeko laneratze-prozesuetan.

V.4. ONDORIOAK

Kapitulu honen hasieran aipatu den bezala, arreta berezia jarri zaie irizpide batzuei, hain zuzen ere, bi dokumentu hauetan azaltzen diren irizpideekin lotura dutenei: bata, **abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, genero-indarkeriaren aurkako babes integralko neurriei buruzkoa**; eta bestea, Eusko Legebiltzarraren Berdintasun Legea, **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea (EGBL)**. Lege horiek ezartzen dituzte asistentzia psikologikorako betekizunak: alegia, **espezializazioa, eskuragarritasuna, deszentralizazioa, doakotasuna, larrialdia, adingabekoei arreta, eta beste baliabide batzuekiko koordinazioa**.

Aipatutako irizpide horien arabera, zazpi zatitan aurkeztu dira *Emakumeen aurkako etxeko indarkeriaren gaineko baliabide psikologikoen ebaluazioa* laneko ondorioak eta azken balorazioak.

V.4.1. Espezializazioa

Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) arreta psikologikorako programen espezializazioari buruzko analisia egiteko, hainbat kontu aztertu dira: lehenik, ea eskusiboak diren etxeko indarkeria bizi duten emakumeei arreta emateko baliabideak; bigarrenik, zer espezializazio-irizpide eskatzen diren programa horietako psikoterapia egiteko, eta zer mekanismo dauden irizpide horiek betetzen direla kontrolatzeko; hirugarrenik, aurrekontuak zenbateraino dauden programaren beharretara egokituta; eta azkenik, zernola betetzen diren etengabeko prestakuntzako bideak, genero-indarkerian eta berdintasunean espezializatutakoak.

EAEko arreta psikologikorako programek ez dituzte soil-soilik artatzen haien bikotekideek edo bikotekide ohiek tratu txarrak eman dizkieten emakumeak. Programa horiek pertsona hauei ere arreta ematen diete: batetik, familiako beste kide batzuek (aita, ama, seme-alaba, edota beste senide batzuk) tratu txarrak jaso dituzten biktimei; bestetik, familia barruan edo kanpoan sexu-erasoak jaso dituzten biktimei; eta azkenik, tratu txarrak ematen dituzten pertsonen.

Arreta psikologikorako programak eskusiboak ez badira ere, etxeko tratu txarren biktime diren emakumeei emandako arretarekin lotutako ekintzek dute pisu gehien haien

jardueran. 2007. urtean, horrelako kasuak izan ziren Bizkaian artatutako kasu guztien %96, Gipuzkoako %73, eta Arabako %66.

Denborak aurrera egin ahala, gero eta handiagoa da etxeko tratu txarren eta genero-indarkeriaren gaineko jarduera: Araban urteko batez besteko %15eko gehikuntza egon da, Bizkaian %3koa, eta Gipuzkoan %5ekoa. Aurrekontuek kontuan hartzen dituzte artatutako arazo guztiak, eta ez bakarrik emakumeen aurka haien bikotekideek edo bikotekide ohiek egindako indarkeriak eragindakoak. Ikus daitekeenez, aurrekontuen urteko batez besteko gehikuntza bat dator kasuen bolumena areagotzearekin. Eta horrenbestez, argi dago ahalegina egiten ari dela aurrekontuko partidak programaren beharretara egokitzeko.

Asistentzia psikologikoa eman behar duten profesionalen hiru programetan eskatzen zaie psikologian lizentziadunak izan behar dutela batetik, eta psikologia klinikoan prestakuntza izan behar dutela bestetik. Eta gutxienezko esperientzia eskatzen zaie, bai psikologo, psikologo kliniko edo familia-interbentzioko psikoterapeuta lanetan, bai tratu txar fisiko eta/edo psikikoak eta sexu-erasoak jaso dituzten biktimen tratamenduan, bai eta tratu txarrak ematen dituzten pertsonen tratamenduan ere. Esperientzia hori egiaztatu egin behar izaten da. Araban bi urteko aurretiko esperientzia eskatzen da, Bizkaian hiru urtekoa, eta Gipuzkoan lau urtekoa. Foru Aldundiek zuzenean eta etengabe kontrolatzen dute behar bezala betetzen direla profesionalen programan sartzeko betekizun horiek.

Ez dute Foru Aldundiek erabaki genero-ikuspegiaren gaineko eta/edo emakumeen aurkako etxeko tratu txarren gaineko prestakuntza izan behar dela arreta psikologikorako programetan sartzeko. Bizkaian eta Araban, kontuan hartzen da adjudikaziodun kabineteak prestakuntza-mota hori bermatzea; Gipuzkoan, ordea, homologazio-betekizuna da “zerbitzuaren eremuan Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako ikastaro eta mintegietara joan behar izatea” profesionalak. Dena den, Gipuzkoako Diputazioak, 2007. urtean profesionalak homologatzeko baldintza teknikoan agiria argitaratu zuenetik, ez du martxan jarri ikastarorik edo mintegirik zerbitzua ematen duten profesionalentzat.

Horrenbestez, Bizkaian eta Araban bermatu egiten da genero-indarkeriako eta berdintasuneko prestakuntza; izan ere, barne-prestakuntzarako bidea diseinatzen du zerbitzuaren adjudikaziodun kabinete psikologikoak. Prestakuntza-mota hori, baina, ez

da behar bezala bermatzen Gipuzkoan, ez baitago hartarako diseinatutako prestakuntza-bide zehatzik.

V.4.2. Eskuragarritasuna

Eskuragarritasuna ebaluatzeko, oraingoan hiru dimentsio hartu dira aintzat: instituzionala, soziala, eta espaziala edo fisikoa.

Eskuragarritasun instituzionalaren oinarriak dira programetan sartzeko Foru Aldundiak ezarritako betekizunak. Alde horretatik, azpimarratzeko modukoa da betekizun bakarra dagoela: dagokion lurraldean izatea bizilekua. Administrazio-egoera irregularra izan edo ez, pertsona batek baliabidea eskura dezake, baldin eta lehendik salaketa jarri badu, babesteko agindua badauka, edota errolda-ziurtagiria badauka.

Bideratzeko eskabideei dagokienez, oinarrizko gizarte-zerbitzuek zeregin garrantzitsua dute baliabidea eskuratu ahal izateko; Gipuzkoan, gainera, hori da baliabideak eskuratzeko bide bakarra.

Oinarrizko gizarte-zerbitzuak arreta psikologikoa eskuratzeko giltza izatearen gainean, herriaren defentsariak – ARARTEKOAK txosten bat idatzi zuen 2003. urtean: “Emakumeen aurkako indarkeriari erakundeek emandako erantzuna EAEn”. Txosten horretan gomendatu zuen aukera eman behar zaiela emakumeei zuzenean jotzeko arreta psikologikoko zerbitzuetara, eta oinarrizko gizarte-zerbitzuek ez dutela izan behar haietan sartzeko ate bakarra.

Gomendio hori egiteko arrazoi bat dago: hain zuzen ere, emakumeei erraztu egin behar zaiela baliabideetarako sarrera, litekeena baita batzuek oztopo sozial nahiz psikologikoak izatea oinarrizko gizarte-zerbitzuetara (OGZ) jotzeko. Araban eta Bizkaian, sarrera-sistemak onartzen du OGZ ez den beste erakunde batzuetatik zuzenean bideratzea programa; eta programan zuzenean artatzen dira emakumeak, nahiz eta emakume horiekin lehendik profesionalik jardun ez.

Eskuragarritasun fisiko edo espazialaz hitz egitean, alderdi ugari sartzen dira: besteak beste, ez egotea arkitektura-oztoporik, dibertsitate funtzionala duten emakumeak errazago sar daitezen; eta/edo egokitutako egongela egotea, terapiak egiten diren bitartean, emakumeekin batera joaten diren adingabeak artatzeko.

Zerbitzuetan badaude dibertsitate funtzionala duten pertsonak sartzeko instalazioak; baina Gipuzkoan, arreta-puntu ugari daudenez, ez da kasu guztietan ziurtatzen arkitektura-oztoporik egongo ez denik. Edonola ere, emakumeak zailtasunen bat badu, beste profesional batzuetara bideratzen da, haietara sartzea errazagoa den arreta-puntuetan lan egiten dutenetara; edo bestela, udal-lokaletan egiten zaio terapia.

Tratamendua jasotzen ari diren emakumeen tutorepean dauden adingabeko laguntzaileen arretari dagokionez, baldin eta emakumeek ezin badute lortu beste norbaitek zaintzea, eta horregatik ezin badute tratamendua jaso, azpimarragarria da Bilboko Arreta Psikologikoko Zentroan haurtzaindegi-umezain zerbitzua dagoela, pazienteak kontsultan dagoen bitarteko. Araba eta Gipuzkoan ez dago adingabeko laguntzaileei arreta emateko egokitutako gunerik.

Eskuragarritasun soziala esaten diogu erabiltzaile potentzialaren eta zerbitzuaren arteko distantziari. Horretarako, bien ezaugarriak hartzen dira kontuan: komunikazio-hizkuntza, arreta ematen duen pertsonaren sexua, eta erabiltzaileen balio kulturalak.

Oso garrantzitsua da emakumearen ama-hizkuntzan egitea psikoterapia, beti ere terapeuta gai bada hizkuntza horretan komunikatzeko. Arreta emateko garaian, beste pertsona batek egon behar badu hor interpretazio-lanak egiteko, uste da horrek ondorio negatibo gehiago ekartzen dizkiola interbentzioari onurak baino.

Horregatik, ez zaio eman horrenbeste garrantzia interpretazio-zerbitzua egoteari. Aitzitik, garrantzitsuagozat jo da terapeutak gai izatea beste hizkuntza batzuetan eta zeinu-mintzairan komunikatzeko.

Badira zenbait profesional kalifikazioa dutenak tratamendua ingelesez edo frantsesez emateko; baina, hala ere, arreta psikologikoa ahula da, oso aukera gutxi baitago gaztelania eta euskaraz besteko hizkuntzatan edo zeinu-mintzairan emateko terapiak EAEn.

Beste kultura-ingurune batzuetatik datozen pertsonentzat ez dago kultura-bitartekotzako baliabiderik; hala izango balitz, errazagoa izango litzateke kultura arteko guneak sortzea, eta gune horiek ez izatea soilik elebidunak.

Bestalde, terapiari dagokionez, ez dago azterketarik terapeuta emakumea izateak terapiari mesede egiten diola bermatzen duenik, tratu txarrak jaso dituzten biktimen interbentzioetan; terapiaren emaitzak ez dirudi loturarik dutenik terapeutaaren sexuarekin. Baina esperientziak adierazten digunez, terapeuta emakumea denean, emakume biktimentzat errazagoa izan ohi da interbentzioko lehenengo harrera eta hasiera.

Egokia dirudi emakumea izatea arreta ematen duen terapeuta, bai harrerako lehenengo fasean, bai eta arretan ere; izan ere, horrela biktimak errazago husten ditu emozioak, eta ez du baztertzen interbentzioa. Hiru lurralde historikoetan bermatuta dago emakume batek ematen duela interbentzio terapeutikoa.

V.4.3. Deszentralizazioa

Baliabideen deszentralizazioak lotura estua du aurreko irizpidearekin, eskuragarritasunarekin, alegia. Izan ere, berebizikoa da Administrazio Publikoetatik eskainitako baliabideak eskuragarriak izatea; eta horretarako, bermatu egin behar da zerbitzuek kalitate bera izango dutela, edozein dela ere erabiltzaileen kokalekua, eta baliabideak behar diren momentua.

Ebaluazio honetan egiaztatu ahal izan da irregularra dela arreta psikologikoko foru-baliabideen banaketa, gehienak hiru lurralde historikoetako hiriburuetan baitaude.

Gipuzkoan, arreta deszentralizatua ematen dute hainbat kabinete eta/edo profesionalek, baina ez dago homogeneousun terapiak aplikatzean.

Hala Araban, nola Bizkaian, kabinete psikologiko bakarrak eramaten du programa; eta horrek esan nahi du tratamendu homogeneousun aplikatzen direla (hor sartzen dira talde-tratamendu saioak) bai probintzian, bai eta bi lurraldeen artean ere. Deszentralizazio-prozesuan aurrerapenak egiten ari badira ere, Araban oraingoz Gasteizen eta Laudion bakarrik ematen da zerbitzua. Bizkaian, berriz, arretako zentroak Bilbon eta Markina-Xemeinen daude (Lea-Artibai, Munitibar eta Aulestiko mankomunitatea). 2009. urtean zehar, Zallako zerbitzua martxan jarriko dela aurreikusten da, horrela estaldura emateko Enkarterrietako eskualdeari.

V.4.4. Doakotasuna

EAEko hiru lurraldeetan bermatzen da dohainik direla arreta psikologikoa emateko terapiak haien bikotekideek nahiz bikotekide ohiek tratu txarrak eman dizkieten emakume biktimentzat, edozein direla ere haien diru-sarrerak.

Dena den, behar adina baliabide ez duten emakumeek lekualdatu egin behar izaten badute terapia jasotzeko, gastu horiek Arabako programak bakarrik hartzen ditu bere gain zuzenean.

Bizkaian eta Gipuzkoan, lekualdatzeko laguntza horiek izapidetzeko, gizarteko bazterkeriaren aurkako laguntzak eskatu behar dira (Oinarrizko Errenta, GLL), eta udal-eskumenekoak dira.

V.4.5. Larrialdia

Zerbitzua jasotzeko eta larrialdia artatzeko denbora-epeei dagokienez, ez dira apirilaren 6ko 64/2004 Dekretuan jarritako gehieneko epeak baino luzeagoak. Dekretu horren bidez onartzen da zer eskubide-karta eta betebeharrak dituzten gizarte-zerbitzuetako erabiltzaileek eta profesionalak²², eta honela dio:

9.artikulua – Beharren ebaluazioa.

(...)

Larrialdietan, ezingo dira inolaz ere 15 egun baino gehiago igaro hasierako harremana egiten denetik ebaluazioa amaitzen den arte. Nolanahi ere, soluzio iragankorrak erabiliko dira, baldin eta beharrezkoak badira epe horren barruan azaltzen diren oinarrizko beharrei berehala erantzuteko.

Hiru lurraldeetan ziurtatzen da dekretuak ezarritako hamabost egunen barruan emango dela **lehenengo hitzordua**; beraz, hitzorduak kudeatzeko, ez dago itxaron-zerrendak

²² Apirilaren 6ko 64/2004 Dekretua. Haren bidez onartzen dira, batetik, EAEko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileen eta profesionalen eskubide-karta eta betebeharrak, eta bestetik, Iradokizunen eta Kexen Araubidea (EHAA 2004/04/23)

erabili beharrik. Bizkaian 3-7 egun itxaron behar da batez beste, Gipuzkoan 3-10, eta Araban 15.

Larritzat jotzen diren kasuei lehenago ematen zaie arreta. Araban eta Bizkaian beti gordetzen da agendan tarte bat horrelako egoerei estaldura emateko. Gipuzkoan, ordea, denbora-epe horretan arreta ematen dela bermatzeko, terapeuten arreta eskatzen da, edota Larrialdietako Foru Zerbitzuaren bitartez erantzuten zaie larrialdiei, eta ez Arreta Psikologikorako Programaren bitartez. Horrela, 24-48 ordu bitartean itxaron behar izaten da.

Larrialdiari dagokionez, ez dago adierazlerik larrialdiak hautemateko. Aitzitik, bai esperientzia, bai arreta-eskaera artatzen duten profesionalen espezializazioa erabiltzen dira horretarako.

V.4.6. Adingabeko biktimak

Lege integralak inskribatzen duenez, arreta psikologikoa da **gizarte-laguntza integraleko** betekizunetako bat; eta hartarako eskubidea dute, hala genero-indarkeriaren biktima diren emakumeek, nola *adingabekoek, baldin eta erasotzaileak badu haien guraso-ahala edo jagoletza*²³: aitortu egiten zaie biktima-estatusa dutela eta, beraz, eskubide-subjektuak direla.

Gipuzkoan, programa honen esparruan ez zaie egiten psikoterapiarik adingabekoei, baldin eta erasotako emakumeak badu haien guraso-ahala edo zaintza eta babespea. Programaren barruan adingabeko biktimei arreta emateko, familiako saio batzuk egiten dira emakumearentzako terapiaren barruan. Bakarkako saioak behar izanez gero, umeen udal-zerbitzura bideratzen dira adingabekoak.

Bizkaian eta Araban, bakarkako saioak behar direla balioztatu ostean, bakarkako arreta psikologikoa ematen zaie tratu txarrak zuzenean edo zeharka jaso dituzten adingabeko biktimei; eta hori dena arreta psikologikorako programen barruan sartzen da.

²³ Abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa, genero-indarkeriaren aurkako babes integraleko neurriei buruzkoa. 19. artikulua. *Gizarte-laguntza integrala izateko eskubidea.*

V.4.7. Laguntzeko beste baliabide batzuekiko koordinazioa

Interbentzioetan zehar, etengabe egiten da lan beste baliabideekin koordinatu ahal izateko: bereziki, Foru Aldundi kontratugileekin, eta erreferentziazko oinarrizko zerbitzuekin. Beharra dagoenean, beste baliabide batzuekin ere koordinatzen da, eta positibotzat jotzen da hori. Baliabide horiek lotura dute, hain zuzen ere, alor juridiko edo judizialarekin, polizia-alorrarekin, eta/edo osasun-alorrarekin.

Garrantzia berezia ematen zaio lan-bitartekaritzako zerbitzuekin koordinatzeko beharrari, horrela laneratze-prozesuetan espezializatutako laguntza psikologikoa ematea sustatzeko.

Eranskina – GALDETEGIEN GIDOIA, LAGUNTZA PSIKOLOGIKOKO PROGRAMETAN ARITZEN DIREN LANGILEENTZAT

PROFESIONALEN PROFILA

- Datu soziodemografikoak
- Esperientzia zerbitzuan
- Espezializazioa
- Hainbat hizkuntzatan komunikatzeko/psikoterapia egiteko gaitasuna

ESKU-HARTZEAREN PROZESUA

- Betetako funtzioak
 - Lana egiteko arazoak eta oztopoak
 - Zer oztopo dauden tratamendu terapeutikoa jarraitzeko
 - Hobetzeko dauden arloen proposamena.

KOORDINAZIOA

- Erakunde barnekoa
 - Zerbitzuaren antolaketa
 - Erakunde barneko koordinaziorako, hobetzeko dauden arloen proposamena
- Erakundeen artekoa
 - Beste polizia-baliabide edo baliabide judizial batzuekiko koordinazioari buruzko balorazioa
 - Erakundeen arteko jarduerarako protokoloak
 - Ezagutza
 - Oztopoak koordinazioan eta lankidetzan
 - Erakundeen arteko koordinaziorako hobetzeko dauden arloen proposamena

PARTE-HARTZEA

- Langileen parte-hartzea zerbitzuaren funtzionamenduaren diseinuan
- Zerbitzuko langileak parte-hartzeari buruzko egokitasuna
- Langileei satisfazioari buruzko inkestak egitea.

PRESTAKUNTZA ESPEZIFIKOA

- Curriculum-ibilbidea
- Prestakuntza espezifikoa
- Jasotako prestakuntza espezifikoari buruzko balorazioa
- Prestakuntza-ekintzak hobetzeko proposamenak.

ZERBITZUAREN NORAINOKOA

- Baliabideen egokitasunari buruzko balorazioa
 - Giza baliabideak
 - Baliabide materialak

- Egoera bereziki ahulean daudenei laguntzeko gailu bereziak (zerbitzura iristeko arrapala, zeinu-mintzairaren interpretea, kultura arteko bitartekariak...)

INFORMAZIOA

- Etxeko tratu txarren biktima diren emakumeei buruzko informazioaren kudeaketa
- Biktima diren emakumezkoek zerbitzuari buruz aurretiaz duten informazioa
- Biktima diren emakumeei emandako informazioa
- Informazioa emateko material osagarriaren beharrari buruzko balorazioa

EMAKUMEEN AURKAKO TRATU TXARREN ARAZOARI BURUZKO BALORAZIOA

- Tratu txarren eta berdintasunaren arteko harremana
- Biktima diren emakumeen autonomia
- Biktima diren emakumeen espektatibak
- Biktima diren emakumeekin lan egiteari buruzko irudia